

Mixel Etxekopar

Pastoralaren eta
maskaraden muinaz

- **Jann-Marc Rouillan** Action Directe talde armatuko sortzaileari elkarrizketa
- **1936ko azken gudariak** Anarkista baten, komunista baten eta nazionalista baten bizipenak
- **Mikel Lasarte** «Kirolaren gogortasuna maite du euskaldunak»
- **Gontzal Grandes** «Bizi-ohitura osasungarriekin heriotzen erdia saihestuko genuke»
- **Elgoibarko Izarra** Nolakoa behar du euskara elkarteak aurrera egiteko?

Larrun 174

www.argia.com/larrun



INDEPENDENTZIA
Aukera ala ametsa?

Elkarrizketa

Mario Zubiaga

EHUko Euskal Nazionalismoa masterreko burua

Iritziak

Mertxe Colina • Joseba Egibar • Floren Aoiz
Carles Puigdemont • Pako Aristi • Xabier Aierdi

**Datorren
astean**



Azaleko argazkia:
CHRISTOPHE DE PRADA

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko martxoaren 24a, 2.362. zenbakia

ASTEKO GAIA

1936KO AZKEN GUDARIAK Errepidearen amaieran.

AITOR AZURKI / 4

PERTSONAIA

MIKEL LASARTE: «Euskaldunon inkontziente kolektiboan ongi txertaturik dago lehiakortasuna». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

GONTZAL GRANDES: «Bizimodu osasungarria eramanez, gaitz kroniko ohikoen %80 saihestuko genuke».

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

IRITZIAREN LEIHOA

GAZTEOK, HASERRETU GAITEZEN! BALEREN BAKAIKOA / 18

NORI BEGIRATU, HORI DA KOSKA FERMIN ERBITI / 20

BESTELAKO NARRATIBA POLITIKA OSO BATERAKO

IÑAKI ANTIGUEDAD / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Petrov. ITXARO BORDA / 20

BERTSO BERRIAK Euskadiko Kutxan lapurtzeko “beste modu bat dago”. RIKARDO GONZALEZ DE DURANA / 21

ZIRTA Idazle lapurrak. IRATXE ESNAOLA / 22

ERDIKO KAIERA

MIXEL ETXEKOPAR: «Sentitzen dut gure euskal mundu txikian tabu bat badela tziganoekiko». UNAI BREA / 23

EUSKAL HERRIKO IDAZLEEN BILTZARRA Haritschelharri omena eta Atxagaren mintzoa Saran. MIKEL ASURMENDI / 26

LITERATURA ARITZ GALARRAGA, G. UBEDA GOIKOETXEA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Egun batez, andreak Deustuko plazaren jabe. U. BREA / 31

IHESI URDIÑARBE Garaibi ibar esküinera, arotz kantaria bidelagun. ALLANDE SOKARROS / 32

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

JANN-MARC ROUILLAN: «Umiliatu nahi gaituzte, gauarekin atera, atzeko atetik». ARITZ GALARRAGA / 39

ELGOIBARKO IZARRA EUSKARA ELKARTEA Ospatzeko eta kezkatzeko garaia. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44

GEORGES IBRAHIM ABDALLAH Frantzia 29 urte preso daramatzen Parot libanotarra. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Alemaniari munduak zorren bi heren kitatu zizkionekoa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Errepidearen amaieran

Belaunaldi borrokalari eta gogor baten azken ordezkariak dira. 95 urtetik gora dute. 1936ko Gerra Zibileko gudari eta milizianoak dira. Hitzaldiak, omenaldiak, egunkarietara gutunak... Bizitzaren azken txanpan, euren ideien eta askatasunaren alde zutik diraute oraindik: Felix Padin anarkistak, Jose Moreno nazionalistak eta Marcelo Usabiaga komunistak hitzak tirokatzen jarraitzen dute memoriaren lubakietatik.

| AITOR AZURKI |



AITOR AZURKI

Marcelo Usabiaga Donostiako Tolosako hiribidean; 70 urte lehenago errepide hura egitera derrigortu zuten, preso zegoela.

“BIDANKOZETIK IGARIRA zihoan errepidea egin genuen diziplinazko langile batailoi batean, 1940tik 1942ra.600 preso-edo. Dena eskuz: harria harrobitik zati handietan ekarri, marraturiko errepidera eskorgaz garraiatu, eta, tiki-taka, pixkana harria borraz txikitu eta zabaltzen genuen. Gero eta harri gehiago jartzen ziguten gainera, txikitzeko! Ondoren Gipuzkoara: Gaintxurizketa, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Zarautz... Bizitza osoan hala izango gintuztela uste genuen!”. Felix Padin (Bilbo, 1916), Durruti batailoi anarkistako tenientearen hitzak dira, errepi-


deak egitera behartu zuteneko oroitzapen latzak gogoan.

Handik gertu, Donostian, Marcelo Usabiaga (Ordizia, 1916) Alderdi Komunistako Rosa Luxemburgo batailoiko miliziano eta errepublikar bateria antiaereo bateko teniente ohiak ere hiriko errepide ospetsu bat egin behar izan zuen, preso zegoela: Tolosako hiribidea. “Oinez Ondarretako kartzelatik hona ekartzin gintuzten eta nire lana harriz beteriko bagonetak bultzatzea zen, beste hiru presorekin batera. Ikusten duzun hau guztia mendia zen garai hartan. Ni heldu nintzenerako, erre-

FELIX PADINEK UTZIA



AUTOR AZURKI



Ezkerrean, Felix Padin langile batailoietako uniformearekin; 1942an errepedeak egiten aritu zeneko argazkia da eta atzean Gaintxurizketa ageri da. Eskuinean, Padin Miranda de Ebroko etxean; Espainiako anarkismoaren sinboloetako bat da egun.

pidea harriz estaltzea baino ez zen falta”, dio ahots indartsuz Donostiako Ibaeta auzoan, errepede hori bera zapaltzen ari den bitartean.

Urte andana azpiegiturak eraikitzen igaro ostean, diktaduraren jazarpena pairatu behar izan zuten. Baita hamarkada luzetako espetxe-zigorra ere. Ondoren, Trantsizioan eta demokrazian ahanzturan murgildu zituen gizarteak. Nolanahi ere, askatasuna eskuratu bezain laster, borrokan jarraitu zuten; bakoitzak ahal zuen neurrian.

Jose Moreno (Deustu, 1818) STV-ELAko San Andres batailoiko gudariak ere bereak eta bi pasa zituen langile-batailoietan. 2005ean, demokraziaren alde aritutako guztiak omendu asmoz Aterpe 1936 elkarteak eratu zuen, beste hainbat borrokalariarekin batera. Baita presidente izan ere. Morenoren helburua Artxandan gudari eta miliziano guztiak omentzeko monumentua ipintzea zen: “Nazionalista naiz, baina ez zitzaidan ondo iruditzen soilik gudariez hitz egitea. Hemen mundu guztiak borrokatu zuen, komunistek, sozialistek, anarkistek,

nazionalistek... Eta 2006an jarri genuen plaka hori batailoiei guztien omenez da, Euskadin sufritu zuten guztientzat egin. Asko kostata, baina azkenean jartzea lortu genuen”.

Elkarteko sortzaileez itaundurik, denboran atzera doa gudaria: “Jose Mari Otxoa de Txintxetru zegoen, beste anarkista hura, burukide bat... Baina hiltzen ari dira, biz-pahiru baino ez gara geratzen”. Hala ere,

urtero-urtero, zazpigarren urtez, ekainaren 18an, Artxandara hurbiltzen da Moreno. Azken gudaria da. “Jaungoikoak nahi badu, aurren ere bertan izango naiz”.

Anaia lurpetik ateratzen

Demokrazia heldu bezain laster, Bernardo anaia fusilatu eta lurperatuaren bila hasi zen Marcelo Usabiaga buru-belarri.

1978an, Pikoketara hainbat aldiz jo zuen, lurperatuen kokalekuaren bila, harik eta bilatu zuen arte: “Atxilotu eta berehala, baserri baten aldamenean fusilatu zituzten hamazazpi pertsona inguru, adinez txiki ziren batzuk, gainera. Baserriko jabeek ez zuten non lurpe-

“Gazteak onak dira, baina doktrimendua eta kemena falta zaie. Gertatzen ari den guztiarekin, kalera irten eta jada hau guztia moztuta izan behar genuke”

**Felix Padin,
Miliziano anarkista**

1936KO AZKEN GUDARIAK

JOSE MORENOK UTZIA



Eskuineko irudian, Jose Moreno STV-ELAko gudari ohia. Goian, txapela besapean duela, Pedro Ordokirekin (irudiaren erdian, gorbatarekin), Bermeon San Andres batailoiari egindako omenaldian.

raturik zeuden esan nahi. Azkenean, iloba batekin hizketan, gutxi gorabehera non zeuden argitu zigun”.

Esan eta egin. Lurra harrotzeari ekin zion Usabiagak gainerako fusilatuen senitartekoen laguntzaz, eta, bat-batean, ordura arte irudi-pena besterik ez zena, egia bilakatu zen: txanpon bat topatu zuten. Hantxe zeuden hildakoak. Gorpuzkin guztiak atera eta Irungo hilerriko mausoleo batean ehortzi zituzten denak elkarrekin. “Ez genuen nahi izan hezur bakoitza norena zen jakin. Berreskuratu nahi genituen, duintasunez lurperatu. Besterik ez”, dio komunistak, mendeku izpirik gabe.

Marcelo Usabiagak eta Jose Morenok letxe, demokrazia garaia iritsitakoan Felix Padin anarkistak bere militantzia berpiztu zuen. CNT sindikatuko bileretan aritu zen etengabe Espainiako Estatuan, eta gogor borrokatu behar izan zuen bere bizileku bilakatu zen Miranda de Ebron CNTk lokala eskura zezan. “Hasi ginenean, bilerak nire etxean egiten genituen. 1989an Bilbon gestioetan hasi nintzen eta adiskide batek eta biok Miranda de Ebroko sindikatua berreskuratzeari ekin genion. 1990ean jada funtzionatzen ari zen eta bi urtera ofizialdu genuen”, dio.

“Gureek ezin dituzte hilerrira loreak eramane. Hori ez da ezkutatu behar; gizarteak jakin behar du zergatik eman zuten estatu kolpea. Eta hemen inork ez du ezer esaten...”

**Jose Moreno
STV-ELAko gudari ohia**



AITOR AZURKI

Harrezkeroztik, herriko anarkismoaren sinbolo bilakatu da Padin, Espainiako Estatuan ere erreferentzia da. 2011n CNTren mendeurrena zela-eta, Bartzelonara joan zen gonbidaturik. “Hortaz, Felix, deitzen dizuten leku guztietara joaten jarraitzen duzu, ezta?”. “Jakina! Astelehenean Madrilerara naramate, Buenos Airesen lez, diktaduraren biktimen aldeko erreklamazioa egin behar baitu CNTk. Nik etenik gabe jarraitzen dut, baina orain jada ez noa mobilizazio guztietara, noizean behin soilik, ezin dut-eta hankekin”.

Borrokarako grinaz gain, umorea ez zaie falta militante zahar hauei. Jose Morenok egunkarietara gutunak idazten segitzen du. “Asteazkenean bat irten zen eta orain beste bat idazten ari naiz. Zuk idazten jarraitzen al duzu? Bada kontuz, ea biok kartzelaratzen gaituzten! Kar, kar, kar.

Ez zaitez hauetaz fio...”. Morenok makina bat gutun idatzi du, gehienak *Deia* egunkariak argitaratuta. “Txosten handi bat dut eta bertan guzti-guztiak dauzkat batuta. Ez dakit zenbat ditudan, asko idazten dut eta”.

100 urte betetzetik gertu dauden arren, sasoiko jarraitzen dute hiruek jo eta ke: “Asko dago hitz egiteko. Frankismoaren sinbolo bakar bat zutik geratzen den bitartean, eta frankismoaren biktimak aintzat hartu arte, hemen ez da bakerik egongo”, azaldu digu argi eta garbi nazionalistak.

Izan ere, askok oraindik ez dakite non lurperatu zituzten beren senitaratekoak. “Gureek ezin dituzte hilerrietara loreak eraman. Hori ez da ezkutatu behar; gizarteak jakin behar du zergatik eman zuten estatu kolpea. Eta hemen inork ez du ezer esaten...”, argudiatu du bizkaitarrak. Grina eta energia odolean daramatela ezin uka: “hitz egiten dudanean, sutan jartzen naiz, ez dagoelako eskubiderik. Ez dut gorrotoarekin hitz egiten, egia jakin dadila nahi dut”.

Gaztedia, “edanda baino okerrago”

“Gazteak onak dira, baina ez dira lehengoak bezalakoak, ez dute espiritu hori. Doktrinamendua eta kementa falta zaizkie. Asko eta asko edanda baino okerrago daude, gertatzen ari den guztiarekin, kalera irten eta jada hau guztia moztuta izan behar genuke”. Padinek oso argi ditu ideiak, eta, gaztetan lez, gaur egun ere, nahiz hankek lehen bezala ez erantzun, berdin-berdin jarraitzen du. Garoñako zentral nuklearraren aurkako manifestaziora, esaterako, urtero joan da, oraintsu arte: “Etiket gertu diren guztietara joaten saiatzen naiz. Garoñakora aurten ez naiz joan... aurreneko aldiz. Baina egon beharra dago! Igandean beste manifestazio bat dago, gertatzen ari diren gauzen aurkakoa. Badaezpada ere, adiskideak nire atzean joaten dira beti, erortzen banaiz eusteko, eta noski, oraingoan ere bertan izango naiz.”.

Marcelo Usabiaga
Oartzungo
Pikoketan,
fusilatuen omenez
paratutako
oroitarriaren
aurrean. Bere
anaiaren eta beste
askoren hezurrak
aurkitu zituzten
bertan 1978an.



IRENE LARRINAGA FDEZ. DE ANTONA

Usabiaga ere ez da geldirik egoten den horietakoa. Omenaldiz omenaldi dabil, azkena, Donostiako Ondarretako kartzelan izandako preso errepublikarrena. “Mesfidantza handia dago oraindik gaiaz argi eta garbi aritzeko. Zuhurtzia, gehiago sakontzeko beldurra, nagusi da oraindik”. Hitzaldiak ere ematen ditu ordiziarrak eskoletan, euskaltegietan, gaztetxeetan, elkarteetan... Gerran eta espetxean izandako bizipen latzez mintzo da beti. 21 urteko kartzelaldiaz. “Egia jakin beharra dago eta hala jarraituko dut ahal dudan bitartean”.

Diktaturak errepidegile bilakatu arazi zituen gure protagonistak, eta bizitzaren errepidean barna ere ederki egin dute aurrera. Gerrak, espetxeak eta langile-batailoiek euren adiskide asko eta asko desagerrarazi zituzten. Denborak ere hamaika irentsi ditu azken hamarkadotan. Jada ez da ia borrokalaririk geratzen gure artean. Betiko desagertzearen den belaunaldi ausart eta konprometitua dugu; eta Padin, Moreno eta Usabiaga azken bozeramaileak dira.



Azpizuneko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Presoak Burgosko kartzelan, 1955ean. Marcelo Usabiaga lehen lerroan ezkerretik hasita lehena da.

Errepidearen amaieran dira, baina ez dira kikiltzen: “Ez naiz ezertaz damutzen. Berriz egingo nuke guzti-guztia”, dio erabat ziur Usabiagak. Felix Padinen berbak ere indartu egin dira bat-batean, biziagotu: “Ikusten dut ez zarela geldirik egoten”. “Ez, ez. Kar, kar, kar! Ahal dudan bitartean, egiten segiko dut!”, erantzun du barrez. “Eta zuk, Jose, borrokan jarraituko al duzu?": “Hil arte. Ez niregatik, euren bizitza eman zuten guztien-

gatik baizik. Hemen ez da inor horretaz gogoratzen. Etengabe ari dira adiskidetzear, baina inoiz ez dira frankismoaren biktimez gogoratzen. Inor ez!”.

Euren etsenpluak gidaturik, gerra zibil anker hartako azken “heroi anoni-mo” hauek desagertzen direnean ere, memoriaren errepidetik aurrera jarraituko dute belaunaldi berriek. ■



EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Balmien zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02/koa)

TOLESTU

TOLESTU

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

13

LA SARE SOZIALA

FINALA

MARTXOAK 23 LARUNBATA
17:00etan

IRUÑEKO ANAITASUNA
KIROLDEGIAN



SARRERAK SALGAI : WWW.BERTSOSARRERAK.EU

Antolatzailea:

Laguntzailea:

argia



«Euskaldunon inkontziente kolektiboan ongi txertaturik dago lehiakortasuna»

Ingurumen-heziketan aditua, eguraldi behazalea, blogaria, harri-jasotzailea eta, tarteka, bertso egilea. XXI. mendeko baserritar ilustratua.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Ikasle Abertzaleak taldeko arduraduna izan zinen ikasle garaian. Hori izan zen zure lehen jarduera publikoa?

Bai, hainbat urtez aritu nintzen hor. Unibertsitatearen sorreran oso garai polit eta aktiboak bizi genituen. Tasen igoeraren inguruko lehen borroka antolatu genuen, adibidez. Soladuskaren aurkako mobilizazioak ere pil-pilean zeuden orduan. Oso urte interesgarriak izan ziren.

Orain Ilundaingo Haritz Berri Fundazioaren baitan Baserri Eskolako zuzendaria zara. Zer egiten duzue hemen?

Fundazioak arazoak dituzten gazteekin egiten du lan, hainbat programaren bidez. Lan hori aurrera eramateko une honetan Fundazioan 200 bat langile ari gara. Gazte hauetako batzuek Baserri Eskola programan parte hartzen dute, eta horrez gain, hemen eskolan ingurumen heziketa lantzen dugu, batez ere ikastetxeekin, familiekin, gazteekin eta jubilatuekin.

Zenbat gazte bizi dira orain Ilundainen?

Adingabeen zentroan 14 bat neska-mutil daude. Honetaz gain, Beloson, Mutiloan eta Zolinan beste erresidentzia batzuk ditugu. Denera 50 gazte dira haietan bizi direnak. Eta beste 100 bat edo gehixeago goizez etortzen dira eguneko programetan parte hartzera: zurgintza, igeltserotza eta lorezaintza. Hemen bizi diren batzuk, epaileak hona etortzea aginduta heldu dira, delituak egiteagatik. Besteak, aldiz, familian edo gizarteratzeko zailta-

sunak dituzten gazteak dira. Drogomenpekotasun arazoak dituztenak beste zentro batzuetara doaz. Hona, zehazki, portaera arazoak dituztenak etortzen dira, denboraldi baterako. Neska-mutil batzuen kasuan bost edo sei urtera arte luzatzen dira egonaldiak. Baserriko eta baratzeko lanak egiteaz gain, iturgintza eta elektrizitate tailerrak egiten dituzte, besteak beste. Helburua da jakintza batzuk ematea autonomoak izan daitezen, gero berriz gizartean integratzeko. Kasu gehienetan emaitza onak lortzen dira. Alde horretatik Fundazioak oso lan ona egiten du, gazte hauek kalean baleude arriskua biderkatu egingo bailitzateke.

NORTASUN AGIRIA

1970eko abenduaren 14an Azpirotzen jaioa. Aita hangoa eta ama Errazkingoa. Baserri giroan hazia, Lekunberrin eta Oronozen ikasi ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nekazal Ingeniaritza Teknikoan lizentziatu zen. Bost urtez lan egin zuen EHNE sindikatuan eta 2001etik hona Ilundain Haritz Berri Fundazioan ari da, Baserri Eskolako zuzendari. Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria izan zen hiru urtez eta gaur egun Sakanako Harrijasotze Eskolako arduraduna da. Herrikirolari buruzko zenbait argitalpen idatzi ditu, Nafarroako Federazioak eskatuta: harrijasotzea, aizkora, trontza, Iparraldeko jokoak, sokatira eta segari buruzko lan dibulgatiboak. Hori bera da bere blogaren zioa. Baina ez hori soilik, bertan aktualitateaz mintzo eta, tarteka, bere bertsoak ere plazaratzen baititu.



Mikel Lasarte, altzifre egurrez motozerrarekin egindako bere eskultura baten aldamenean.

Haien bigarren gurasoak zarete?

Hemen dauden hezitzaileek bokazio handia dute. Nik baserrian egiten dituzten lanak koordinatzen ditut, besterik ez. Berehala ikusten da oso gustura etortzen direla. Kasu askotan haien lehen harreman zuzena da animaliekin eta naturarekin. Animaliekin egotea oso onuragarria da beraientzat, terapia moduko bat. Izan ere, halako terapia gero eta gehiago egiten ari dira portaera arazoak dituzten pertsonekin eta emaitzak oso onak izaten dira. Ikusten da, nolabait, inguruarekiko, animaliekiko harreman hori gizaki orok behar dugula. Lehen, etxean genuen horretarako aukera, baina gaur egungo gizartean populazioa, gehienbat, hirietan dago, eta herri handietan ere galdu egin da baserri giro hori.

Nolakoa da gazte hauekin duzun eguneroko harremana?

Harremanak normal-normalak dira. Azken batean, Haritz Berri Fundazioan dauden gazteak beste gazteen oso antzekoak dira, baina arazo latzak izan dituzte euren bizitzetan eta horrek izugarri baldintzatu ditu. Beraiekin lan eginda azkar konturatzen zara zeinen pribilegiatuak izan garen geure bizitzetan.

Ikastetxeetatik ere talde ugari jasotzen duzue bisitan urtean barna. Zenbat haur?

6.000 haur inguru urtean. Pattalagoa izan da ikasturte hasiera baina orain jada egunero dauzkagu bisitak. Baserri eskolara etortzen diren ikastetxeetako haurren %75 inguru Iruñea eta Iruñerriko haurrak dira, hiri giroan

Etorkizuneko gizartea

“Gizartea izugarri ari da aldatzen. Nekazaritza eta abeltzaintzarekin zegoen lotura galdu egin da neurri handi batean. Etorkizuneko gizarteari begira, eta jasangarritasunaren onerako, iruditzen zait herriak hiritartu egin beharko direla, eta hiriek berreskuratu egin beharko dutela naturarekiko lotura”.

Apustuak

“Aurtengo neguan, aspaldian jokatu den apustu gehien jokatu da. Kirolariek eta federazioak lan egiten jarraitzen badugu, gauza politak egingen dira”.

hazitakoak. Dena den, adibidez Altsasu, Elizondo edo Erriberatik etortzen direnak ere hiri giroan bizi direla esan daiteke, eta ikaragarri gustatzen zaie animaliekin aritzea. Gaztelaniaz eta euskaraz egiten ditugu saioak eta udako kanpaldietan ingelese ere hasi gara eskaintzen. Astebetez baserritar bihurtzen dira haurrak eta ingurumenarekin lotutako ekintzak egiten dituzte.

Lan polita zurea.

Oso polita, oso gustura nago. Gu horrela hazi ginen, lehengo moduko baserri batean. Eredu hori kasik galduta dago eta gaur egun dauden baserritarrek edo haragi behiak, edo ardiak, edo txerri pila dituzte. Ilundaingoan erakusten dugu nolako zen baserri tradizionala, anitza. Gainera, gai asko lantzen dugu programen bidez: baratze ekologikoa, mintegiak, energia berriztagarriak, basoa, klimatologia, birziklatzea...

Eguraldiaz ere asko dakizu. Nola ikasi duzu?

Zaletasuna izan dut betidanik. Gurasoei entzuten nien, irakurri dut, eta batez ere Pello Zabalar. Bere liburu eta blogarekin asko ikasten da.

Tenporek, adibidez, funtzionatzen dute eguraldia igartzeko?

Tenporekin jakin dezakegu hurrengo urtarotan zer haize nagusituko diren, eta badakigu gutxi gorabehera haize horiek zer ekartzen duten normalean, baina besterik ez. Joera moduan hartu behar dira. Hortik aurrera igartzea ezinezkoa da. Aurtengo euriteak inork ez ditu iragarri, ez dira normalak izan:



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



bi hilabetetan, urtarrila eta otsailean, 400 litro baino gehiago egin du metro koadroko. Urte osoan bota ohi duenaren erdia. Martxoa ere nahasi joan da, baina amak zioen bezala: “Ostiralez hasten diren hila-beteak nahasiak izaten dira”.

Herri kirolak dira zure beste afizio handia.

Trontzan hasi nintzen, zaku lasterke-
ta eta sokatira pixka bat egin izan
dut, baina batez ere harri-jasotzea
azken urte luze hauetan. Azken bola-
dan, dezente aritzen naiz motozerra-
rekin eskulturak egiten. Oso gustura.
Denetarik egiten dut: ahuntzak, kro-
kodiloak... eta azkenaldi honetan
aurpegiekin ari naiz. Astero egiten
dut zerbait. Lana nahiko azkar egiten
da. Lehenengo proportzioak eta for-
mak aztertzen dituzu eta gero moto-
zerra hartu: hasieran motozerra han-
dia, 12 edo 15 kiloko pisua duena,
gero ertaina, eta lan zehatzenak egi-
teko 25 zentimetroko ezpata duen 4
kilo eta erdikoa.

Nafarroako Herri Kirol Federazioko presidentea izan zara eta orain Sakanako harri-jasotze eskolako arduraduna. Nola ikusten dituzu herri kirolak? Haur eta gazteen artean zaletasunik bada?

Badago, bai. Oinarrizko antolaketa
planteatzen baduzu, lehen urtean ez
bada hurrengo urtean edo bestean
hurbilduko dira. Ikasle gehiegi ere
ezin dugu hartu oso arreta pertsona-
lizatua eskaintzen zaielako. Orain sei
ikasle ditugu eta nahiko pozik gaude
kopuru horrekin. Nik nahiko polita
ikusten dut herri kirolen momentu
hau. Maila ona dago. Aizkolari gazte
asko eta asko dago eta harri-jasotzai-
leak ere bagabiltza. Kirola gero eta
gehiago ari da egituratzen eta eskolak
han eta hemen sortzen. Ez gaude altxaferuak
botatzeko moduan, baina gauzak egiten ari
dira eta zaletasuna badago. Berriozarren oso
eskola ona dago: sokatira, trontza eta kirol
ugari egiten dira, Baztan-Bidasoan ere herri
kirol mota asko lantzen dutena, Sakanan aiz-
kolari eskola eta nesken sokatira talde sendoa
dago, Irurtzunen harri-jasotzea... Herri kiro-
la lehen makurrago ere egon da.

Kirolari eta entrenatzaile, baina baita blogari, idazle eta *spiker*-a ere...

Dibulgazioa asko gustatzen zait. Asteburutan
mugitzen gara, gehienbat. Probak ikustera



joan, erreportajea egin, argazkitxo batzuk
hartu eta hori dena blogean jartzen dut. Egia
esan jarraitzaile asko daukat, urtean zehar
60.000 bat. Teknologia berriek hori izugarri
erraztu dute. Blog batean idatz dezakezu ia
kosturik gabe; hori bai, ez dugu batere dirurik
irabazten, gastatu baizik.

Zein da harriarekin inoiz egin duzun markarik handiena?

Duela hamar urte pisu bikoitzeko harria,
160 kiloduna, bost minutuko txandan sei
aldiz altxatu nuen. Normalean 100 kiloko
harriekin ibiltzen naiz. Jada ez ditut txapel-



AZKEN HITZA

Konpetibitatea

“Gaur egungo gizartearen ahultasun asko ekonomiaren globalizazioari lotuta daude. Mundu mailako merkatu libre horiek ez dute ez bihotzik ez sentimendurik, irabaziak lortzea da euren helburu bakarra. Konpetibitatea zentzu horretan ulertuta oso txarra da. Gizartearen garapena gaur egungo eztabaidaren lehen planoan ipini behar da, horrek suposatzen duen guztiarekin, errespetua, elkarbizitza, jasagarritasuna, elikadura subirautea... Gogorra da esatea, baina krisiari esker jokamolde batzuk ari gara aldatzen. Jendeak berogailuak modu arrazionalagoan erabiltzen ditu. Autoa ez da hartzen lehen bezainbeste. Kontsumitzeko garaian gehiago begiratzen da eta behar ez dena ez da horrenbeste erosten”.

ketak egiten. Prestakuntza oso sakonak egin behar dira horretarako, maila nahiko altua delako.

Aurrekoan Inaxio Perurenak 300 kilokoa altxatu zuen.

Izugarria da hori. Lau harri-jasotzailek baino ez dute lortu, Euskal Herrian eta mundu osoan: bere aitak, Migeltxo Saralegik eta Iñaki Otaegi Gibitegi goiaztarrek.

Herri kirolen antzeko jokoak ere egiten dira munduko beste toki anitzetan.

Bai, baina haiekin konparatuta, hemengo probak askoz ere luzeagoak eta gogorragoak dira. Australian, adibidez, enbor bat moztzen dute eta kito. Hemen, aldiz, zortzi, hamar edo hoge, apustueta. Indar probetan ere, ahalik eta pisu handieneko pisuak jasotzen dituzte, baina behin, eta hemen aldiz, 100 kiloko harria jasotzen da, behin eta berriz, ahal den guztietan. Alde horretatik, euskaldunari ez dakit sufritzea gustatzen zaion, baina nolabait, kirolaren gogortasun hori maite du. Indar psikologiko handia behar da horretarako.

Zergatik gustatzen zaie kirola horrenbeste euskaldunei?

Nire ustetan euskaldunak gustukoa du lehia eta borroka, arlo ezberdinetan. Barruan dugun zerbait da. Nire aita ere aizkolaria izan da eta txiki-txikitik giro hori bizi izan du, eta gustatzen zait. Bixigarria da. Bertsoekin berdin gertatzen da. Kirolari txarra naiz, baina entrenatzea izugarri gustuko dut. Astero roko eguna eta ordua iristean, elkartu eta dugun guztia ateratzea. Bost-sei lagun elkar-

tzen gara eta borrokan sartuta aritzen gara. Horrela gara zoriontsu, ez dugu gauza handirik behar.

Lehia hori bizitzaren beste alorretan ere ikusten da, diozunez.

Jokorako grina berezia dago eta gaur arte mantendu da apustuen bitartez, herri kirolaren kasuan adibidez, gizartea izugarri aldatu bada ere. Nik uste euskaldunon inkontziente kolektiboan ongi txertaturik dagoen zerbait dela. Gure kultura baserri giroari lotuta egon da, eta eremu horretan bizitza oso gogorra da. Eguneroko lanak lehian jarri dira aisialdian. Gure kulturaren bereizgarrietako bat da: bizitzari eta lanari loturik egon gara beti. Lehiakortasuna, bere zentzu onean ulerturik, ez dut uste txarra denik, alderantziz, errespetua eta elkartasuna bezalako baloreekin uztartzen bada, onuragarria da gizabanakoentzat eta gizartearentzat.

Eta denbora nondik ateratzen duzu?

Beti esan dut denbora baino garrantzitsua goa dela energia. Energia izanez gero denetarako denbora ateratzen da. Antolaketa txiki bat eginez ahal da. Ni, adibidez, astero ordubete edo gehiago aritzen naiz harriarekin, asteburuetan beste tartetxo bat hartzen dut mendira joateko. Blogean egunero ordu erditxo bat zerbait idazteko, normalean gauean, haurrak oheratu ondoren. Motozerrarekin aritzeko ordu pare bat ateratzen ditut astean. Noski, telebista eta halakoak utzi behar dira horretarako. Halere, nik ez dut meriturik, gustatzen zaizkidan gauzetan aritzen naizelako. ■



GONTZAL GRANDES

«Bizimodu osasungarria eramanez, gaitz kroniko ohikoen %80 saihestuko genuke»

Egizu Bizitza Osasuntsua esperientzia pilotuak bi urte egin ditu Osakidetzako lau zentrotan.

Prebentzioa funtsezkoa da osasunean, bizimodu ohiturak aldatuz heriotzen %50 saihestu ditzakegu, baina nola lortu herritarrok ohitura osasungarriak hartzea? Ekimenaz arduratzen den Bizkaiko Lehen Mailako Arreta Guneko Ikerketa buru Gontzal Grandesi luzatu diogu galdera.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Zergatik da garrantzitsua bizimodu osasungarria bultzatzea?

Gaur egun badakigu, ikerketa guztien arabera, bizi-kalitatea hondatzen diguten edo hiltzen gaituzten gaixotasun nagusien kausa hein handi batean bizimodu ohiturak direla. Elikadura desegokiak, jarduera fisiko ezak eta tabakoaren eta alkoholaren kontsumoak eragiten dituzte EAEn urtero ditugun kasik 20.000 heriotzetatik 10.000 inguru. Egutero ordu erdiko jarduera fisikoa eginez, modu orekatuan janean, ez errez eta alkohola neurrian edanez, heriotzen %50 saihestuko genuke, baita gaixotasun kroniko ohikoenen %80 ere (bihotzekoak, sistema kardiobaskularrari dagozkionak, diabetesa, minbizia...). Zifra ikaragarriak dira, ez dago halako inpaktu potentziala duen beste ezer.

Baina ez dakigu herritarrek bizi ohitura osasungarriak hartzea nola lortu, borroka hori sozialki galtzen ari garelako. Egia da tabakoaren gaian gauzak aldatzen ari direla eta gero eta gutxiago erretzen dela, baina beste ohituretan (elikadura eta jarduera fisikoa) gal-

Gontzal Grandese azaldu digunez, elikadura desegokiak, jarduera fisiko ezak eta tabakoaren eta alkoholaren kontsumoak eragiten dituzte EAEn urtero ditugun kasik 20.000 heriotzetatik 10.000 inguru.

tzen ari gara borroka, eta inpakturik handiena duten faktoreak dira une honetan. Esaterako, azken 50 urteetan nagusitzen ari den bizimoduak sedentarismoa ekarri du (autoan goaz leku guztietara), obesitate proportzioa handituz doa haur eta gazteen artean... Berezko borondate eta baloreez gain, gizartearen eta inguruaren eragina ere nabari da. Horri guztiari aurre egiteko modu bat da auzo eta herrietan dugun lehen mailako arreta zerbitzu sarean neurriak hartzea, programa honekin egiten ari garen gisan, baina beharrezkoa da esparru ugariatik jokatzeko. Hau ez da osasungintza sektorearen ardura soilik, programa martxan jarri dugun auzoetako hezkuntza eragileekin, lantegiekin, udalarekin, kiroldegiekin, auzoko elkarteekin... elkarlanean aritu gara, mezuak eta irizpideak adosteko.

Eta ikuspegi klinikotik, zein da programak jarraitu duen prozedura?

Bizimodu ohiturek duten garrantziaz osasun zentroko langileak beraiek kontzientziazatzea izan da lehen urratsa. Jakitun gara denak,

GONTZAL GRANDES

baina pixka bat gehiago sakontzen duzunean eta benetan konturatzen zarenean zeinen handia den bizimoduak gaixotasunetan duen eragina, herritarrei mezua behar bezala helarazteko lehentasunaz jabetzen dira profesionalak. Pazienteei tabakoaz edo alkoholaz ohartarazi ohi zaie, baina parte hartu duten herritarren %70 inguruk esan digu ez dutela inoiz jaso komeni zaien elikadurari edo ariketa fisikoari buruzko mezurik mediku edo erizainengandik. Areago, batzuetan mezu kontraesankorrak jasotzen dituzte eta bihotzeko arazoren bat duena kontsultatik atera daiteke pentsatuz ez zaiola komeni ariketarik egitea.

Behin kontzientziatuta, oinarri eta irizpide bateratu batzuetatik abiatuta, zentroak berak antolatu du programa martxan jartzeko dinamika: gerturatzen diren herritarren ohiturei buruzko informazioa nola eskuratu, horien araberrako gomendioak nola eman, ohitura aldaketan plangintza egiten nola lagundu... Eta zeregin horietan guztietan ematen den eboluzio adierazgarriekin hileroko txostena bidaltzen diegu ikerketa gunetik, gogoetatzeko eta estrategia hobetzen jarraitzeko.

Praktikan, zein motatako gomendioak ematen dituzue?

Kasuan kasu. Lehen Mailako Arreta zerbitzuak harreman iraunkorra garatzen du herritarrekin, haren osasun egoeraren ezagutza handia du medikuak eta horren arabera egokitu ditzake aholkuak. Guk irudi bidezko materiala eskuratu diegu medikuei, mezua errazago helarazteko, eta adibidez asma duenari ikusarazteko zein onura ekarriko lizkiokeen arnas aparatuari tabakoa uzteak, jarduerak fisikoak eta abar. Aipaturiko ohiturek gorputzeko organo eta sistema guztietan eragiten dutenez (kardiobaskularra, arnas-sistema, endokrinologikoa, neurologikoa...), beti egin daitezke loturak batzuen eta besteen artean, herritarren osasun egoeraren neurritik. Aholku estandarrak, “ariketa egin behar duzu” gisakoak, gutxirako balio du, eta eraginkorragoa da plan bat egiten laguntzea, errealistak diren helburuak adostea, urratsez urrats. Farmakoa bailitzan, baina dieta, ariketa fisiko edo tabakoa uzteko neurriak errezetatuz.

Era berean, prebentzio programa izanik, gaixotasunik ez dutenei ere eman zaizkie gomendioak. Osasun zentroetatik ia-ia biz-

tanleria osoa igarotzen da eta bisita hori aprobetxatu behar dugu, ohiko analisia egitera gerturatu bada ere, ohitura hauen garrantziaz hitz egiteko, gaixo egon edo ez, duen adina duela ere.

Lau faktore nagusi aipatu dituzu. Besterik hartzen duzue kontuan?

Gaur egun, badakigu zein den arrisku-faktoreen rankinga, gaixotasunak eragiteko arrisku-tsuenak diren faktoreak, eta horren araberrako lehentasunak finkatu ditugu. Elikadura, jarduera fisikoa eta tabakoa dira rankingaren gaina, ondoren alkoholaren abusua dago eta aintzat hartzen ditugu baita ere faktore biologikoak (hipertentsio arteriala, hiperglezemia, obesitatea...), inguruko kutsadura edota bestelako drogen kontsumoa. Baina ikerketa prestigiotsuenen arabera, heriotzan nahiz bizikaltatearen galeran funtsezkoa da elikadurak eta jarduera fisikoak duten eragina. Gainera, mediku gisa errazagoa da faktore horietan eragitea, ingurunean kutsadura eragitea baino.

Prebentzioa zein mailatan da garrantzitsua osasun sistemaren beraren biziraupen eta sostengurako?

Osasun sistemak eutsi ezin duen deskripzio demografiko eta epidemiologikoa daukagu. Gaixotasun kutsakorrek kontrolatu eta bizikaltatea hobetu izanari esker bizi-itxaropena luzatu egin da azken urteotan, baina aldi berean, zahartzen goazen heinean gaixotasun kroniko asko metatzen goaz eta horrek osasun tratamendu pila bat eskatzen du. Aurrekontu ekonomikoen %80 jaten dute gaixotasun kronikoak. Bizi-itxaropena luzatzearekin bat, bizitza horretan gaixotasunik ez izatea

lortu behar dugu eta jakin badakigu formula: gutxienez egunean ordu erdiko jardun fisikoa egiten badugu —orduei erdi, ez gara ari sekulako ahalegina eskatzen—; fruitutan, barazkitan eta arraiekin aberatsa den dieta hartzen badugu, haragi, gatz eta koipe polisaturatu gehiegi jateari utziaz; eta tabakoa saihesten

badugu, orduan bai, 100 urtera iritsiko gara eta urte horietako askotan gainera ez dugu gaixotasunik izango. Ekonomikoki ere, lehentasuneko gaia behar luke prebentzioak, baina artatzera bideratzen da diru gehien gehiena. Ilogikoa da, adibidez, diabetesa duena artatzera zuzentzea aurrekontua, helduen diabetesen iturburuaren %90 baino gehiago elikadura eta ariketa fisikoak direnean.

“‘Ariketa egin behar duzu’ gisako aholku estandarrak gutxirako balio du, eraginkorragoa da plan bat egiten laguntzea, helburu errealistak adostea”

“Aurrekontuaren %80 jaten dute gaixotasun kronikoak. Lehentasuneko gaia behar luke prebentzioak, baina artatzera bideratzen da dirua eta egitura”



"Jendeak dagoeneko ez daki arrautzak jatea ona ala txarra den, desinformazio asko dago, eta medikuak ardura du eguneratzeko eta informazioa behar bezala helarazteko, herritarrari jakinarazteko bularreko minbizia goiz detektatzeko programa baino are eraginkorragoa dela ariketa fisikoa egitea eta emakume aktiboa izatea, adibidez", dio Grandesek.

Zein puntutaraino uzten dugu herritarrok gure osasuna medikuen esku, geure osasunean dugun ardura delegatuz?

Hain zuzen ere, osasuna medikalizatzearen kontra doa programa, herritarrari gogorarazten diolako osasuna batez ere norberaren esku dagoela, norberak daraman bizimoduaren eta dituen ohituren esku. Norberaren ardura eta norberaren zaintza nabarmentzen dugu, gaixotasuna izan edo ez izan, etorkizuna markatuko dizutelako ohitura horiek, eta guk lagundu diezaiokegu bide horretan. Inguruak ere zeresana du, noski, faktore ekonomiko, sozial, kultural exogenoak daude eta ez da berdina bidegorriz jositako herri batean bizitzea edo autoentzako pentsatuta dagoen hirian, baina norberaren hautua funtsezkoa da. Jendea hezi behar da, eskolatik hasita, baina baita bizitza osoan zehar, eta ez dator gaizki noizbehinka medikuak osasun prebentzioko neurriak gogoraraztea. Jendeak dagoeneko ez daki arrautzak jatea ona ala txarra den, desinformazio asko dago, eta medikuak ardura du eguneratzeko eta informazioa behar bezala helarazteko, herritarrari jakinarazteko bularreko minbizia goiz detektatzeko programa baino

"Osasuna medikalizatzearen kontra doa programa, herritarrari gogorarazten diolako osasuna batez ere norberaren esku dagoela"

are eraginkorragoa dela ariketa fisikoa egitea eta emakume aktiboa izatea, adibidez.

Zenbat jende hartu du parte programan, zein emaitza lortu dituzue eta zein etorkizun du orain ekimenak?

Duela bi urtetik, lau herritan dugu martxan: Sondikan, Matienan, Bilbo Zaharrean eta Beasainen, eta guztira 80.000 bat biztanlerekin aritu gara. Programan parte hartu ez duten

herritarrekin konparatuta, %6 gehiagok lortu du bizimodu ohiturak aldatzea, ekimenari esker. Baina proba pilotua da eta inportanteena da bertako zentroetan ikusitako oztopoei eta ikusitako estrategiei esker, prest gaudela parte hartu nahi duten Osakidetza zentroetara ekimena modu eraginkorragoan zabaltzeko. Hamarnaka zentro-

tan inplementatuko dugu, pixkanaka, aldaketa handia baita eta zentroen borondatea funtsezkoa da: ekintza honek zentroen egitura aldatzen du, gaur egun gaixotasuna artatzera bideratuta daudelako zentroak, ez prebentziara. Ezin dugu gauetik egunera Osakidetza dituen 319 zentroetan sartu. ■





inguru
ABENTURA.COM

San Juan 18
Albeniz-Asparrena (Araba)
www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com - Tel. 635 748 948

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...





MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Gazteok, haserretu gaitezen!

BETIDANIK entzun izan dugu “etorkizuna gazteena dela”. Hitz ederrak, baina errealtitatea ez da hain argia. Horrelako esaldia betetzeko aurreko belaunaldiak leku egokia egiten saiatu beharko luteke, baina gaur egungo egoera ikusita, gure gazteek ez daukate itxaropentsu egoteko arrazoi gehiegirik. Bizitza proiektua gauzatzea ez da inoiz erraza izan, baina gaur egungo aterabidea okerrago bihurtu zaigu.

Gure artean urte on samarrak izan ditugu, gazteek aurrera egin zezaten, beren bizitza proiektuak itxuraz gauzatze-ko: langabezi gutxi eta ikasteko aukerak ugari. Hala ere, norbaitek etxebizitza eskuratu nahi bazuen, auzo-gune edo herri txiroagotara joan behar zuen.

Gaur egungo egiturazko krisialdi honen ondorioz, gazteen egoera ekonomikoa, 15etik 25 urtekoen artekoa, erabat okertu da. Izan ere, gazte multzo honen langabezi tasa ehuneko 39,30era heldu zaigu EAEn, 15 milatik gora lanik gabe daudelarik; hamarretik lau langabe. Zifra hau oraindik okerragoa da Espainiako Estatuan, non ehuneko 55,50 baita; hamarretik sei langabe daude!

Badirudi Europako Batasuneko agintariak kezkatzen hasi direla langabezi tasa garaiegiak direlako, batik bat Mediterraneoko herrialdeetan. Baina euro-zonan ere adin horretako gazteen artean langabezi tasa ehuneko 25era heldu da. Benetan datu kezagarriak

Zer egin egoera larri horretatik irtete-ko? Badirudi Europako Batasuneko (EB) agintariak kezkatzen hasi direla langabezi tasa garaiegiak direlako, batik bat Mediterraneoko herrialdeetan. Baina, euro-zonan ere adin horretako gazteen artean langabezi tasa ehuneko 25era heldu da. Benetan datu kezagarriak.

Egoera larri hau konpontzeko EBk 6 mila milioi euroko funtsa bat eratze-ko

asmoa dauka 2014tik 2020ra bitarteko zazpi urteetan erabiltzeko, gazteek lana errazago aurkitu dezaten. Kopuru horretatik 918 milioi Espainiak eskuratu omen ditu. Funtsa horrez gain, estatu kideek ere dirua jarri beharko dute helburu bera erdiesteko. Dena dela, Espainia bezalako estatu batentzat urteko 131 milioi ez da asko eta funtsa gehiago lortzeko guztiok presionatu beharko ditugu EBko erakundeak, baita estatu-koak eta erkidegokoak ere. Jendarte zibilak, gazteak buru, mugitu beharko du, gutxieneko duintasunarekin bizi nahi bada.

Bestalde, azpimarratu behar da aipatu diru hori enpresei emango zaiela langile gazteak kontratatze-ko, Alemanian edo Austrian bezala, 400 bat euroko soldataren truke. Baina ez dakigu zer gertatuko den diru laguntza horiek amaitutakoan; ziurrenik kaleratu egingo dituzte. Gainera, ez dago batere argi nor kontratatuko diren: goi mailako ikasketak amaituta dauzkaten gazteak edo oinarritzko ikasketak burutu gabe dauzkatenak. Halaber, kontratu mota hauek ez diete gure gazteei aukera handirik emango bizitza proiektu duina ahalbidetzeko.

Jendarte politika honen ondorio nagusietako bat enpresari-ko —finantzariak ere kontuan hartuta— Barne Produktu Gordi-naren zati handiago bat eskuratzea izango da, langileek eskuratzen dutenaren kalte-rako. Izan ere, 2012an bertan, langileen zatiak ehuneko 8,50 egin zuen behera eta zati hori BPGren ehuneko 44,20ra erori zen; bien bitartean, enpresari-ko ekoizpen horren ehuneko 46,10 lortu zuten eta gai-nontzekoa zergetara joan zen.

Batzuk aberasten diren bitartean, gaz-teriaren gehiengoak ezin du bere bizitza proiekturik gauzatu, ez duelako lanpostu-rik, are gutxiago etxebizitzarik. Azken finean, egoera tamalgarri hau ez al da nahikoa jendarte osoa haserre-tzeko? Haserretzea, hain zuzen, izango litzateke Stép-hane Hesseli egin diezaioke-gun omenaldirik hoberena. ■





Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Nori begiratu, hori da koska

DIRU PUBLIKOAREN kontrola eta komunikabide publikoen egoera, horra hor demokraziaren heldutasuna neurtzeko bi adierazle, zerrenda askoz luzeago bate-tik hartuak. Adierazleok oso kontrajarriak dira agintarien jarrerari dagokionez: lehenbizikoa ez dute batere maite; komunikabideekin, ordea, txoratu egiten dira agintarien eragina indartzeko indar handiko tresna direlakoan.

Diru publikoaren kontrola antolatzeko bi modu daude. Bata, Mediterraneo aldekoa, Espainia edo Greziakoa, Euskal Erkidego Autonomoak ere bere egin zuena: diru publikoaren fiskalizazioa alderdi politikoetako konfiantzazko ordezkarien esku dagoenez, erakunde horiek ez dute sinesgarritasunik. Beste ereduak, jakina, demokrazia aurreratuenetakoa da: kontu epaitegiak erakunde teknikoak dira. Parlamentuek gehiengo zabala behar duen auditore profesionala aukeratzeko dute presidente, eta gainerakoak funtzionarioak dira, independentzia bermatzeko. Kontrol sistema mota honek gardentasuna bermatu eta administrazioen eraginkortasuna hobetzeko balio dezake.

Madrilgo ereduak kopiaatzea negozio txarra dela frogatzeko, hortxe azken adibideetakoak: PPren bar-

neko zikinkeriak Espainiako kontrol sistema ere kakaztu du. Inork ezagutzen ez zuen Espainiako Kontu Auzitegian 900 lagun ari (omen) dira lanean. Alderdien kontuei buruzko azken txostena, esaterako, duela sei urtekoa da. Eta ez galdetu noizkoak diren Errege-etxeari, armadari edo udal nagusiei

buruzko azken fiskalizazioak, horrelakorik ez baituzue aurkituko. Bistan denez, guraizeak ospitale edo eskoletan sartu aurretik bada nondik moztu.

Diru publikoaren kontrolean bezala, komunikabideetan ere ezinbestekoak dira profesionaltasuna eta kritikotasuna, txanpon beraren bi aldeak. EITBko buru berriak azaldu duenez, profesionaltasuna eta euskara indartzea dira etorkizuneko bi ardatz nagusiak. Abiapuntu txarra ez bada ere, nik beste bi gehituko nituzke: batetik, EITBren eremu naturala zein den argi izan dezala, gure herria, berez, nahiko

txikia baita are gehiago murrizteko. Eta azkenik, kopiaatzen hasita Madrili begiratzeak dakarren kostuaz ohartzea ere ona litzateke, kontrolean bezala komunikabideetan ere harrigarria litzatekeelako handik deus onik etortzea... ■

PPren barneko zikinkeriak Espainiako kontrol sistema ere kakaztu du. Inork ezagutzen ez zuen Espainiako Kontu Auzitegian 900 lagun ari (omen) dira lanean. Alderdien kontuei buruzko azken txostena, esaterako, duela sei urtekoa da



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Petrov

DIRUA, eskastean, bat-batean biziki aipatzen da denetan. Pobrezia eta pataska hedatzen doaz hamarkada hauetan ustez hain oparoa den Europan barna. Eskaleak aurkitzen dira Saint Denis karrikan, O'Connell etorbidean, Donostiako Bulebarrean edo Mauleko Peko Arrüan. Per-paus anitz hasten ditugu lehen... hitza bere malenkonian zamaz lehertuz. Lehen ere, alta, astean ostiral bat baino gehiago zego-larik frankorentzat.

Euskal Telebistak eskaintzen duen *Eske-rririk Asko Petrov* erreportajeak ederki erakusten digu munduaren egunak, euskaldu-nenak halaber, ez direla beti baketsuak

izan. Alderantziz, 1982tik gaur arteko iru-diak begimentzean argi dago, alde edo aurka, bakarretan axolagabe, pasionatuki borrokatu garela handik eta hemendik. Berunezko mendeak jasan ditugu alabaina. Gorka Otxoaren aurkezpenek hausnarren zabaltasuna onartzen dute gainera.

Kronos gosetiaren atzamarretarik txarrena bezain hoberena garatzen zaigu pan-tailan. Sinetsi ezin ukigarri. Hamabi zatieki-ko obrak komertzializatzeko DVD batean bildua izateak merezi luke, memoria kolekti-boa zurkaizten duelako.

Eskerrik asko Petrov! ■




Iñaki Antigüedad

♦ EHUko IRAKASLEA

Bestelako narratiba politika oso baterako

NORK BERE talaiatik. Ni nagoe-netik behintzat ezina egiten zait gaurko euskal eszena politikoa-ren osoa harrapatzea, hain da zabala! Argia gauza batzuetan, lausoa besteetan, eta dena koadro berean! Are gehiago, tristea beharko luke izan eszena osoa menperatu nahi izateak, koadroa zurrungia izango baitzen orduan, hauskorra beraz. Mugimenduen bizitasuna behar du eszenak, zalantzak zalantza, koiuntura politikotik harantz eta instituzioetatik honantz. Norabide argiko ibaiak ere txirikordatuak izaten dira gurea bezalako haran zabaletan.

Zelan harrapatu espazio-tarte eta denbora-epe desberdinetan milaka herritar aktibo gauzatzen ari diren zertzeladak? Koadroari bizitasuna emateaz gain markoa bera ere indartuz doazen zertzeladak? Eta biak behar ditugu bizi-gai trantsizio batean, koadroa eta markoa, ohiko politika ez baita politika osoa. Burua honetaz bueltaka nuela irakurri dut Joseba Sarrionandiari egindako elkar-riketa. Eskertzekoa iruditu zait bere narratiba euskal eszena politikoa irudikatzea. Antzeztoki bihurtuta ikusten du, urte askoko antzezlantengatik. Eta jokaleku berrien beharra aipatu, eragile diren antzezle berriekin; gizarte zibila. Antzerkia egiteari utzi eta plaza ireki bihurtu politika, elkarlanerako aukerak zabalduz, eta inertziak, nork bereak, gairiditzen joanez. Aldaketek trantsizioa behar dutelako, eta trantsizioek aldeko baldintzak...

Argigarria ere Arnaldo Otegi-k Sorturen agurrean esana. Hots, gehiegitan gauzak definitzeko

adjektibo asko erabiltzen ditugula, desitxuratzena heldzeraino edo. Kontsigna gutxiago eta argudio gehiago, zioen. Narratiba politikoa bera irauli beharra. Eta ez narratiba bakarrik. Argudioetan etengabe sakondu beharra, eta zabaldu. Gogora ekarri zuen presoak orain ez asko abiatutako aldaketarik funtsezkoena politika ulertu eta egiteko moduan datzala. Mentalitatean jarri zuen iraultza; landa politikoari ezin atek ipini. Gure posizioak eta gure disposizioak, zioen, uztartu beharra. Debatea den mahai gutietan egon behar da, zutik bada ere, hori bai, eragiten, barrutik bezala kanpotik ere, koadroa osoa landa hartuta.

*Argigarria Otegi-k
esana: gauzak
definitzeko adjektibo
asko erabiltzen
ditugula, desitxuratzena
heldzeraino edo*

Krisi askoren konbergentzia ematen ari den honetan, egunez egun eta lekuz leku, koadroa betetzen doa eta markoa zehaztuz. Instituzioen barrukoa garrantzizkoa izan arren kanpoan ari da gehien koadroa koloreztatzen, Erreterria asko baitira euskal geometria aldakorrean. Zer esanik ez, grisak ere baditu koadroak, halabeharrez, azken finean trantsizioaren seinalea da grisa, ibili beharrekoa. Baina ibili. Harri ibilian goroldiorik ez. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

**BERTSO
BERRIAK**
**Rikardo
Gonzalez de
Durana**


Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.



XDZ

Euskadiko Kutxan lapurtzeko “beste modu bat dago”

Txomin García, Javier Retegi Agustin Markaide eta MCCko buruzagiek ipini zuten arreta berrogei mila bezerori edo egiteko lapurreta. Zortziehun milioi euro ta piko zer nolako diru meta! Gu esku hutsik gelditu gara haiek patrikak beteta.

Euskaldun hitza jan zutenean babestu zuten gezurra gero Fagor ta Eroski ekarpenez egin zuten iruzurra. Aitona-amonak ta langileoi hain nabarmen ta ziurra Euskadiko Kutxak kendu digu aurreztutako apurra. Lapurrak sari ona jaso du bezero onak egurra.

Kooperatibak sortzeko asmoz on Jose Mari lanean baina orduko izpiritua urratu da azkenean eta boikota piztu diegu oso era zuzenean baina hau ere amaituko da noski egunen batean kendu diguten diru guztia itzultzen digutenean. ■

Egilearen oharra: Kaltetuek hona deitu dezakezue 653 74 52 80.



◆ IDAZLEA



Idazle lapurrak

IDAZLEAK LAPURRAK direla mila bider esan da, gehientsuenetan, idazleek eurek hala aitortuta. Idazle gaiak gainerako autoreei zitak, ideiak, estrukturalak, tonua eta behar duen guztia kopiaituz hasten du lapur karrera, eta laster, beldurra galtzen dio egunkarietako albisteak errepasatu eta ebasteari, baita aurrean topatzen duen edozein liburutatik materiala eskuratzeari, izan kronika, biografia, historia edo esoterismoa tratatzen duen gaia, erraz eta eroso, etxetik bertatik eskurik zikindu gabe.

Arrisku urriko lapurretara da, nahiz noizbehinkako fanatiko-agerpena kontuan edukitzekoa izan. Idazten duguna irakurri dugunaren ondorio dela ahaztu duen fanatikoak plagio akusazioa egin diezaioke idazleari, halako ideia beste halako egileri lapurtu diola argudiatuz. Behin eta berriz kopiatzen dugula esatea beste defentsarik ez du idazleak. Ezer ez da ezerezetik sortzen, ez gara errepikatzaileak baino. “Egungo artista bat gustu oneko kleptomano bat izan daiteke”, irakurri nuen Harkaitz Canori esaldia lapurtu zion kazetari anonimo baten esku arrotzak utzitako zita, neronek lapurtzen nuen bitartean, geroxeago Canok David Foster Wallace-ri prestamuan hartu ziola jakiten amaitzeko. Lapurren artean metodikoak dira batzuk, liburua eta arkatz-ordenagailua ezin bereizizkoak. Alferrak dira besteak, emozio dardara aldian behingoko erasatean animatzen direnak zerbait idatziz jasotzera. Baina denek jaten dute eta dugu elkar.

Lapurreten eskaileran maila bat igo eta lekuan lapurtzeko tenorea heltzen zaio idazleari. Kaleko arrotzei keinuak, esaldiak, elkarrizketa puskak kentzen dizkie, eta are, emozioak eta sentimenduak, libretatxoak edo memoria lagun. Batek azarearen esku utziko du harribitxiaren topaketa. Bestea beren-beregi irtengo da

lapurretara; kafetegietako elkarriketak transkribatu-ko ditu, autobus publikoetara igoko da pertsonaia ehizan jardutera. Idazleak kontzienteki lapurtzen duen unea interesatzen zait. Zer sentimendu ditu lapurtuekiko? Eta zer dute


esateko idazlearen inguru hurbilekoek? Gauza bat baita ezezagunei lapurtzea, eta bestea, maiteei.

Iban Zalduak *Idazten ari dela idazten duen idazlea* lanean Richard Ford-en zita bat gordetzen du, aski ilustragarri:

“Egiazki, inork ez luke idaz-
le batekin endredatu
behar, baldin eta ez badu
haren liburuetako
batean agertu nahi, egu-
nen batean. Harreman
hori zurgin batekin edo
sarreragile batekin izatea
da egokiena, arazoak albo
batera uztearren”.

Hitz egin duzu idazle lagunarekin zure maitemin lotsez, edo beharbada, ogia erostean bizi izan duzun eszena surrealistaz. Akaso harrotasunez altxatuko duzu paparra argien berrian zure istoriotxo

narratua ikustean. Sentiberagoak erreklamatuko du ea zer dabilen idazlea bere trapu zikinak aieratzen (kasurik beltzean harremana hoztuko da). Baina idazle lapur gorenak ez du halako arazorik, urte askotako esperientziak arriskua ekiditeko modua eman baitio. Ikasi du hil ala bizikoa ez dela lapur izatea, ez bada lapurtutakoa ongi kamuflatzea. Lapurreta perfektua literaturan erreala errealista bilakatzea da, egia egiantzekotasun, norbere galbahetik pasa eta gero. Adornatu, disimulatu, ezkutatu, eta egitearen egitez, lapurtu dutela ahaztu eta ahaztarazi. Nago modu honetako krimen perfektuak ditugula fikzio askoren jatorrian. Are, arrotzei eta maiteei egindako arpilatze ezkutuak direla fikzio guztiak. ■



Antton Olariaga



«Sentitzen dut gure euskal mundu txikian tabu bat badela tziganoekiko»

Xiru jaialdiaren antolakuntzan murgilduta aurkitu dugu Mixel Etxekopar (Irabarne, Zuberoa, 1963). Martxoaren 22tik 24ra egingo da Xiru, Gotaine-Irabarnen. Azken egunean Etxekoparrek berak idatzitako *Ederlezi* pastoral ez-ohikoa jokatu da, eta hori izan dugu harekin solasteko aitzakia nagusia. Nicole Lougarotek, Etxekoparren bikotekideak, ijitoen eta maskaraden arteko harreman zuzenaz 2009an plazaratutako *Bohémiens* ikerlanean oinarritzen da *Ederlezi*.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Christophe de Prada

***Ederlezi*.** Eman lezake, baina ez da euskal hitza.

Ederlezi tziganoen festa bat da, udaberriko festa, maiatzaren 6an Balkanetan egiten dutena. Guk izen hori hartu dugu metafora gisa, udaberriko pastoralak baita gurea. Badakigu pastoralak udan dela mementoan, baina denboran anitz aldiz egin izan da udaberrian ere. Guk hala eginen dugu, pastoral bat formatu txikian. *Ederlezi*-ren gaia eta mamia tziganoak dira, eta forma pastoralak izanen da.

Agian "alternatibo" da *Ederlezi* izenaren ondoan gehien erabili den adjektiboa. Bat zatoz?

Erabili da, eta erabil bezate. Nik ez dakit zer den ortodoxia eta zer den alternatiboa. Niretzat pastoralak bera da alternatiba mundu uniformizatu honetan, historien kontatzeko manera desberdin bat, aspergarria batzuentzat, oso garaikidea besteentzat eta zaharkitua hirugarrenentzat. Pastoralak hartu du forma bat orain, eta maite dut. Baina Patri Urkizuk bildu zuen liburu batean XVIII. mendeko pastoralen berri, eta aipatzen den lehen pastoralak 700 bertset edo kopla ditu, eta bederatzi aktore. Orduan, zer zen pastoral ortodoxoa edo alternatiboa? Egia erran, Xiru festibalean maite dugu tradizioa begiratzea, ez errepikatzen den gauza bat bezala, baina beti birsortzen den gauza baten gisa.

***Ederlezi*-ra itzuliz.** Tziganoak dira protagonista.

Bai. Euskal Herrian buhameak deitzen dira, eta hortxe da kosketarik bat, zeren buhame, batzuentzat, klase sozial bat da, pobreena.

Baina ez, populu bat da, Euskal Herritik pasatu eta hemen kokatu direnak XVI. eta XVII. mendeetatik. Halere, irudimen hori geratu da zeren batzuk ez baitira integratu, eta beti egon da halako bereizketa. Populu





Ederlezi-ren mustraka batean hartutako argazkiak, Urdiñarben. Eskuinean Nicole Lougarot ageri da. Lougaroten *Bohémien*s liburuan jasotako ikerlanean oinarritzen da *Ederlezi*, eta bera da, hain zuzen, pastorealeko errejenta.

gisa bizi direno izanen da bereizketa hori. 1969an, uste dut, egin zuten tziganoen lehen munduko biltzarra, eta kontzientzia hori piztu zen. Nik hori euskaldun gisa maite dut. Euskal kontzientzia ere noizbait –beharrik– piztu zuten Campionek, Sabino Aranak...

“Zergatik da hain zaila Euskal Herrian aitortzea usantza horiek [maskaradak] tzigano populutik heldu direla? Iduri luke horren aitortzea, nonbait, euskal kulturaren ahultzea dela”

Populu horren arrastorik bada Zuberoan? Esango didazu, noski, maskarada dela arrastoetako bat, edo nabarmenena behintzat.

Lausotua da baina Euskal Herrian badaude komunitateak, hemendik hurbilen Garazi aldean. Sozialki integratuak ez direlako da zailena aipatzea agian, Frantzian izugarritzko eztabaidak izan dira horregatik. Zuberoan oso berria da afera. Oraindik bizi eta zahar direnetan izugarritzko iraina da “buhamea”. Badakite nori erraten duten, badakite nori

min ematen duten. Belaunaldi batentzat buhame erratea oso gauza mingarria da, barregarria maskaradetan, eta hori da koska txiki bat. Nola izan daiteke barregarria maskaradetan, eta hain baztertua gizartean?

Barregarri, diozu. Baina hori baino gehiago direla esango nuke. Buhameak protagonista handiak dira maskaradetan, eta kauterak zer esanik ez: Pitxu eta Kabana protagonista nagusietarik dira, nagusiak ez badira, eta Kabanaren eta Buhame Gehienaren ahotik mintzatzen da herria. Beraz, maskaradetan bederen, buhameei, kauterei, zerbait aitortze zaie, ezta?

Hori aski berria da, bihurturik bat izan zen 1982ko maskaradetan. Predikuak estu zituen batek eta ikusi zuen euskal kontzientziaren ahots bilakatu zela Kabana. Orain ez dut ikusten buhamerik edo Kabanarik euskararen kontra mintzatzen. Gertatu zen urte batzuetan eta izugarritzko kalapita sortu zen. “Ezin daiteke euskara gutxietsi maskaradetan!”. Kontua da zuk diozun bezala protagonismo handia badutela, baina zergatik zaie hain zail ikerlariari eta gizarteari publikoki aitortzea buhame eta kauterei, tzigano, rom, ijitoi, populu bat direla eta agian



zerbait ikusteko badutela gure maskaradetan? Ez dut erantzunik galdera horrentzat. Errumanian izan naiz Nicolekin, bere ikerketarako, eta han ikusi ditugu, beste izen batzuekin, Kabana, Pitxu, Jauna eta Anderia... Zergatik da hain zaila Euskal Herrian aitortzea usantza horiek tzigano populutik heldu direla? Iduri luke horren aitortzea, nonbait, euskal kulturaren ahultzea dela. “Zuberoako maskaradak dira gure ikurra, eta aitortzen badugu buhameek-eta zerikusia badutela, ai, ai, ai...”. Ni horretaz harro nago. Pirinioetan jendeak pasatu eta joan dira, eta eskerrak, kutsatze baikor horrek egin du gu garena. Sentitzen dut gure euskal mundu txikian tabu bat badela.

Zer ikusiko du Ederlezi ikusten duenak?

Fikzio bat da, nahiz eta gertakariak denak diren historikoak. Ama batek, Ederlezik, zeharkatzen ditu Euskal Herriak, eta men-

Ederlezi-k tzigano edo buhame herriaren bilakaera kontatzen du, emakume baten eta haren zazpi alaben istorioaren bitartez.

deak ere bai, bere zazpi alabekin. Gipuzkoatik Zuberoaraino Euskal Herria zeharkatzen dute. XVII. mendean hasten da haien ibilaldia, eta beren bizi denboran pasatuko dira lau mende, XXI. mendean bukatzen baita. Ama hori, pastoral guztietan bezala, hiltzen da, badu halako bukaera triste bat, hiltzen baita presondegian, baina ez da bukaeran hiltzen, hiltzen da pastoral erditan, eta gero zazpi alabek jarraitzen dute bizitzten eta beren ohiturak kantatzen, eta maskaradak egiten, eta haiek jasaten dituzte oldartzeak eta bazterketak.

Oso parte hartzaile gutxi edukiko du Ederlezi-k. Nahita?

Bai. Pastoralak orain oso handiak dira, eta iduri luke jende gutxiarekin egitea alternatiboa dela baina duela 50 urte pastoralak jendeen erdia baino gutxiagorekin egiten zen. Nioen bezala, Urkizuk bildu izkribuetan aipatzen dira bederatzi aktoreko pastoralak.

Zergatik dira hain handiak gaur egungoak?

Orain zerbait handia egiten dugu edo hilak gara. Horrek badu bere alde ona, ikusgai izateko, bereziki euskaldunok bezalako gutxiengo batentzat, baina badu alde txarra ere, zeren alderdi soziala bada azkar pastoral handi batean, alderdi artistikoa ez da derrigorrez handiagoa. ■



“Orain pastoral handiak egiten ditugu edo hilak gara. Horrek badu bere alde ona, ikusgai izateko, baina badu alde txarra ere, zeren alderdi soziala bada azkar pastoral handi batean, alderdi artistikoa ez da derrigorrez handiagoa ”

EUSKAL HERRIKO IDAZLEEN BILTZARRA

Haritschelharri omena eta Atxagaren mintzoa Saran

Euskal Herriko Idazleen Biltzarra Pazko biharamunean izaten da, astelehenean; Sara herrian. 30. ekitaldia da aurtengoa; apirilaren 1ean. Idazleak, adinekoak dira nagusiki. Idazle gazteen presentzia emendatuz doa urtetik urtera. Herriko Etxeak eta EKEk tokiko polikiroldegia azoka gisa apailatu ohi dute. Argitaletxeek liburu-kutxak prest dituzte jadaneko. Jean Haritschelhar euskaltzaina omendua izanen da. Bernardo Atxagaren mintzaldia azpimarratu dugu egitarauan.

| MIKEL ASURMENDI |



IDAZLEEN BILTZARRA Sara herrian izatea, euskal literaturaren bilakaera edo segida natural gisara har dezakegu. Sarako Eskola dugu oroimenean, XVII. mendeko euskal literaturaren mugimendua bildu zuena. Dena erratera, badago eskola izan ote zen zalantzan jar-tzen duena. Aramaioko Patxi Salaberri Muñoak, esaterako. Demagun, ez zarela Sara-ra egundaino menturatu, eta harako bidea hartu nahi duzula. Zatoz gurekin, bada!

Sarako erretore izan zen Pedro Agerre *Axularren* garaiaz aitzinera egin dugu –XVIII. mendean gaude engoitik–, eskualde bereko Joan-Piarres Duvoisen idazlea hartu dugu hizpide. Bernardo Atxagaren *Etiopia* liburua bere abizenarekin hasten da: “Duvoisin kapitainaren itzulpenean ere hala irakurtzen da, zeru boteretsuak ez ziela begiratu Kaini eta haren emaitzei; baina ez da argi ikusten mesprezio horren zergatia, ez eta Abeli ondo begiratzearena ere (...)”. Ainhoan jaiotako Duvoisenek *Vulgata* osoa itzuli zuela diosku Atxagak *Kain. Abel* idazkian. Jainkoak galdera asko egin omen zizkion Kaini. Hala nola: “Zertako samurtu zare?”. Kaini boterearen krudeltasun geldoa ageri omen zitzaion. Horregatik-edo, *Vulgatan* ez bide dira Kainen erantzunak jasotzen.

Antigoaleko kontuak giblean utzi ditugu, eta Ruper Ordorikak kantatutako Atxagaren *Galderak* poemaren hitzok gogorarazi ditugu: “Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak? Kausitzen al duzue maitasunik sikiera, zuen maitatuen arteko ehundiko hogeita bost edo hogeiairen baitan?”.

Euskal Herriko 30. Idazleen Biltzarraren kaietara abiatu gara Lapurdi aldera, eta guk ere galdera andana pausatu diogu geure buruari: “Zuek, Iparraldeko anaia-arrebok, patua aipatzen duzuenean zertaz ari zarete zehazki? Otoi egiterakoan, gogoan izaten al dituzue paradisuako karabanak?”.

Galderak asmatzean ez gara txit originalak izan, egia erratera. Eta gainera, aldi batez, XX. gizaldian europar kontinenteko blokeen artean altxatu zen muga eta gure herriko muga nagusia, biak ala biak, buruan nahasi ditugu.

Sarako Azoka egunean

Sarako Azoka Aberri Egunaren biharamunean izan ohi da, jende osteak Euskal Herrian gaindi ibili ostean. Irudi luke, Sararako bidea malkartsua bihurtzen dela Pazko biharamunean, leku patarra bide da gure Iparraldea. Idazleen Biltzarrak *esoterismo* kutsua ote duen pentsa dezakegu. Konparazionera, Zuberoako Pastoralaren *exoterismo*aren aldean. Beraz, Sarako Azokara bidea hartu orduko Maiatz eta Hatsa literatur elkarteak ezagutzea lagungarria dela pentsatu dugu. Izan ere, gaur egunera arte idazleak –idazle bakan batzuk– baino ez dira Sarara menturatzen –Hegoaldeko idazleek ari gara–. Azokako mozkinen egile direnak, alegia. Erran dezagun argiago: Durangoko Azokara doazen erromes eta kontsumitzaile osteentzat Sarako Azoka arrotza da. Areago, euskara mendraturaren aldean, Errepublikako hizkuntza nagusia gailendu ohi baita bertan. Zeruko edota lurreko botereen krudeltasun agerikoa, naski.



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK UTZIA

Nolanahi den ere, Sarara arribatu gara, azokarako asmoz arribatu ere. Eliza eta Herriko Etxearen inguruan utzi dezakegu autoa, edota azokara bidean dagoen plaza nagusian. Karrikaz karrika goazela, hilerriak inguratzen duen San Martin Elizaren dorrean hauxe irakurri dezakegu: “Oren guziek dute gizona kolpatzen azkenekoak du hobirat egortzen”. Goizeko 10:00etarako iristea gomendatu digute. Sarako Elizako ezkilek 12:00etan tanko seinalatzen baitute eguerdia. Ez gaitezen horregatik aztoratu. Orenak oren, orduak ordu, Iparraldean egon arren, ez gara berant arribatu. Bereztasunik bereztasun, hona batto: azokan sartzeko ordaindu behar duzu. Populu gutxitua izatearen seinalea duzu diru-laguntzarena. Gurean ez dago paradisurik, ezta edenaren antzekorik ere.

Lapurdiko Sara herrian izaten da Idazleen Biltzarra. Aurtengoa 30. ekitaldia izanen da, Euskal Kultur Erakundearen (EKE) eta Sarako Turismo Bulegoaren ardurapean. Argazkian, iazko azokaren ikuspegia.

Egitaraua

Azokaren idekitzearekin abiatu da ekitaldia. Idazleek beren liburuak salduko eta izenpetuko dizkizute. Jabaltasunez begiratu eta aukera dezakezu, baita idazleekin patxadaz mintzatu ere. Sara ez da Durango, eta Azoka ere ez. Eusko Ikaskuntzaren ekitaldia hasi da segituan, 10:15ean. Bekak jaso dituzten idazleen edota egileen izenak ezagutuko dituzu. Literaturaren mozkinen xerka ari bazara, ez harritu, ez gaitzitu, uzta ez baita oparoa. Historia, linguistika edota ikerkuntzari buruzko liburuak aurkituko dituzu batez ere, baita bideoak ere. Ez etsi horregatik, argialetxeen standetan so egizu arduraz. Egile edota emaitza preziaituren bat aurkituko duzu. Baita idazle *exoterikoren* batekin izan ezik, idazle *esoterikoren* batekin mintzatzeko parada izanen ere.

10:45: Euskaltzaindiko liburuen aurkezpen ordua. Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant euskaltzainek *Jon Mirande, olerkaria* eta *Antoine d'Abbadie, Abbadiaz* liburuak aurkezteaz gain, literatur eta kultur eragileez mintzatzeko zaizkigu hurrenez hurren. Henri Duhauk, berriz, *Gratien Adema Zaldubi: Gaineratekoen bilduma* aurkeztuko du, baita Adema idazleaz mintzatzeko ere. XX. mendeko idazleak dituzu beraiek.

12:00: Eguerdian, Biltzarrak Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohia omenduko du.

Lehenago baina, 11:15etan, XX. mendekoa izan ezik, XXI. mendeko idazlea mintzatzeko da azokan: Bernardo Atxaga. Luzien Etxezarretaren eskutik. Azokaren egitarauaz doi-doi dakigu, Mintzaldiaren gaiaz deusik ez. Alabaina, guk eta zuk, Sarako Azokara abiatu ginenok, hainbat galdera berri nahi dugu, Atxagaren mintzaldirako iradokizun gisan: “Asko al dira, asko al zarete mugaz bestaldeko erresuma honetan? Egunero telebistatik edo bestelako ausagailuen bitartez sumatzen dugun jendea, hemen bizi al da?”. ■




Euskaltzaindia Sarako XXX. Idazleen Biltzarrean

apirilaren 1ean, astelehenean

Aurkezpena:

ANTOINE D'ABBADIE, ABBADIAZ
Egilea: Jean-Louis Davant
GAINERATEKOEN BILDUMA
Egilea: Gratien Adema “Zaldubi”
Paratzailea: Henri Duhau
JON MIRANDE, OLERKARIA
Jon Mirande poète parisien
Egilea: Txomin Peillen Karrikaburu



Helduen literatura

Lehenago zen berandu
Arantxa Iturbe
Alberdania, 1995

Hau ere esnetsu eta zopatsua

LITERATUR LANEN zerrenda mehe baten jabe da Arantxa Iturbe. Agian iratiari eskaintzen dizkiolako ordurik behinenak –arratsalde-
ro aritzen zaigu, aste barruan, euskarazko irati publikoan–. Agian zutabegintzari ematen dizkiolako ordurik libreneak –igandero argita-
ratzen du artikulatu bat, euskarazko egunkari bakarrean–. Eta, hala ere, literatur lanen zerrenda mehe baten jabe da Arantxa Iturbe. Mehea izanagatik ere, literatur lanen zerrenda interesgarri baten jabe.

1992koa du lehen narrazio bilduma, *Ezer baino lehen*. Gorka Bereziartuak kitatu zituen liburuarekikoak tarte honetan bertan. Besteak beste, best-seller izaera aitortzen zion –“18. edizioa” dioen gerrun-
tze gorriarekin–, baina desberdintasunak –eta indarguneak– seinala-
tzen zizkion nazioartean gehien saltzen den liburu ereduarekiko. Hartara, esan genezake, betetzen zuela Iban Zalduak bere blogean oso zailtzat jotzen duen hura: aldi berean esnetsu eta zopatsu izatea, salmenta handiak –jarri nahi adina komatxo– eta, tira, goi mailako kalitate literarioa ez dakit, baina bai kalitate literario nahikoa, kritikak ere nabarmentzeko modukoa.

1995eko bigarren narrazio bildumak, mintzagai dugun *Lehenago zen berandu* honek, edizio ugari izan ditu –eskuartean daukadan 2006ko aleak 6. edizioa dela dio–. Beraz, txukun saldu da. Eta kalitate literarioari dagokionez maila nabarmengarria aitortu behar zaio, halaber. Hau ere esnetsua eta zopatsua dela, alegia. Arestian aipatu dugun Zaldua berriz aipatzeagatik, esan, adierazi izan duela inoiz *Lehenago zen berandu* honekin hartu zuela atzera interesa euskarazko literaturarekiko, eta, batez ere, euskarazko narrazioekiko. Eta 95eko kritika apurrek era berean ondo hartu zuten –pentsa, *Goenkale* tele-
sail arrakastatsuen antzik bazeukala esateraino–. Baina guretzat garrantzitsuenak: 2013an gustura irakurtzen direla bertako ipuinak, fresko mantentzen dutela gaurkotasuna.

Izan ere, denborarekin gutxi aldatu diren giza-harremanak dituzte ardatz: gizon-emakumeen artekoak, senar-emazteen artekoak, maitale, lagun, guraso- seme-alaben artekoak. Familia, zentzurik zabale-
nean, eta bere zirkunstantziak harrapatzen dituzte, begirada zorrotz, arretatsu, sarri zirtolari batekin. Umorea baita nabarmendu beharre-
ko beste ezaugarrietako bat, fina. Eta hizkera, azkenik, batere apain-
durarik gabea, baina ez horregatik errazkerian erortzen dena.

Ai, ama! eta *Kontu-jaten* aurrekoengandik ezberdinek osatzen dute Arantxa Iturberen literatur lanen zerrenda mehe baina interesgarria. Ordurik behinenek eta ordurik librenek uzten dituzten beste ordu horietan idaztera animatzea, asko eskatzea izango da akaso. ■

Aritz Galarraga



Narraziorako abilezia

ZORION HANDIEGIAK oihartzun zabala izan du hedabideetan, eta ez da harritzekoa. Kontalari aparta da Munro, fin eta itxura batean erraz harilkatu ditu ipuinotako istorioak, eta ororen gainetik, narratzearen plazerak bultzatzen duela ematen du. Ez du formaren edertasuna bilatzen, ez da pertsonaiekiko lerrotzen edo urruntzen. Egoera eta sentimendu korapilatsuak zaizkio interesatzen, eta ataka horietan diren gizon-emakumeak nola ego-
kitzen diren azaltzeak.

Emozio konplexu horiek ilustratze-
ko zenbait adibide. Lehen ipui-
neko protagonistari bere hiru hau-
rrak hil dizkio senarrak, eta ustekabeko bideetan barrena saia-
tuko da min jasanezin hori gaindi-
tzen. Haurren krudelkeria susma-
gabea hartuko du gaitzat beste ipuin batean, eta bostgarrenean, berriz, aurpegi desitxuratua bizi-
tzan ekarri dizkion alde onak eta txarrak aztertuko ditu gizon batek.

Liburuaren atzealdeko aipamen batekin guztiz ados nago. “Mun-
rok aparteko dohaina erakutsi du landugabea dirudiena –anekdotaz-
koa– arte bihurtzeko”, Joyce Carol Oates-ek *The New York Review of Books* argitalpenean, eta beste aipa-
men batzuekin batera, promozio moduan emana da kontrazalean. Sentsazio horixe bera sortu zidan niri ere, nahiz eta batzuetan, idazle kanadarrak joeraz erakusten duen puntu ilun hori gehie-
gizkoa iruditu. Gustu kontuak. ■



G.U.G.

Zorion handiegia
Alice Munro

Itzultzaileak: Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga, Aiora Jaka, Itziar Otegi. Meettok, 2012



Politikoki zuzenari haginkada

2012KO ABENDUAREN 12A
(12/12/12), Erromako aitasantua mundura twitter bidez zuzendu zen eguna, Benedicto XVI.aren hondamendiaren hasiera izan zen, haren sasikumeek, Bilboko Rat-Zinger taldeak, bigarren diskoa kaleratu zuelako. Munduko hedabide asko Vaticanora begira daude, gainbeheran dagoen erlijio botere-tsu inposatzaile eta suntsitzaile baten agente gorena aldatzera doalako. Handia da sistema ilun horrekiko morboa. Baina, egia ez da inoiz azaleratuko.

Egungo taldeen artean ere gutxi dira entzulearen lepora haginika egitera salto egin eta egiak aurpegi-
ra botatzen ausartzen direnak. Ez,
ez dira jada 1980ko hamarkadako
garai gris haiek, baina gaur egun
koloreak gehitu badira ere, horien
azpian bidegabekeriak eta miseriak
are eta latzagoak dira.

Rat-Zinger taldea 2011n sortu zen Anarko, Sucio Sistema, Pilt, Zer Bizio! eta beste talde batzuetan ibilitako jendilajeak osatuta, guztiak kalean asko ikasiak. Luzaroan pilatutako amorru eta ezintasuna bota nahi zuten, oka egin; horretarako, ‘Cartas al Vaticano’ (Mauka, 2011) lana kaleratu zuten. Boltaje handiko punk-rock-and-roll kantuak idatzi zituzten, azkarrak, oldarkorrak eta gitarreroak, Motörheadetik hurbil. Eta eskola zaharreko punk-hardcorea eta hardcore metaleroa ere landu zituzten. 14 kantu gordin atera zituzten, amorru eta sarkasmoz josiak, jugularrera zuzen-zuzen doazenak. Oso argi zuten Ratzinger akatu nahi zutela, “gurutzadetako sarraskien-gatik, elizetako kanpaien soinuagatik”; eta Podriren ahots erasokorrak azaldu zigun “Izua erein nahi dut,

amodiozko kantuak desagerrarazi”, rockaren idolo guztiei eraso egiteaz gain.

Rat-Zingerreko kideek badakite ez dutela luze iraungo, eta ez dute ezer galtzeko; hala, herritar zanpatuen ahotsaz gain, junkie, puta eta sasilapurrena ere jaso nahi dute. Musika taldeak eta oro har jendea politikoki zuzena den honetan, 2012ko abenduan bigarren okaka luzea heldu zen, *Crónicas de la destrucción* (Mauka, 2012). Bilbotarren eskaintza ez da batere findu, alde-antzez. Egia da taldeak ez duela bolbora asmatu, baina ziur behin baino gehiagotan erabili duela eta sarri munizio eskasian egongo zela.

Honako diskoa are eta gordina-
goa da eta, zalantzarik balego,
Ander Sarabia artistak diskoaren
azalerako egindako marrazkiak hala
erakusten du; Jesukristo bera heroi-
na gaindosia hartzen, alajaina.



*Crónicas de la
autodestrucción.*
Rat-zinger

Mauka, 2012

Musikari dagokionez, Motörhead-en pareko punk-rock gitarrero eta bortitza egiten jarraitzen dute, nahiz eta abesti kaletarrenetan Quemando Ruedas eta Señor No inspiratuenak oroitarazi, eta erritmo biziko hardcoreari heltzen diotenean –bonbo bikoitz eta guzti– hastapeneta-ko Soziedad Alkoholika gogora ekarri eta gainditzen dute. ■



Iker Barandiaran

Gabriel Aresti
euskaltegia

%10eko beherapena
euskaltegiko
ikasleentzat

ASTE SANTUA 2013

Umeak eta gazteak
Antzerki koloniak / Jolas koloniak
6 -12 urte / Bazkaria barne (Kafe Antzokian)
Musika sorkuntza eta DJ laborategia
13 - 16 urte


Helduak
Barnetegiak
Bakaikun (Nafarroa)
Bilbon (lo etxean)
16 urtetik aurrera



Done Bikendi 2, 4. - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com

Gurutzegrama



BRUNO NAVEZ-CC BY SA

Ezker-eskuin:

1. Buruko zapi txiki. Mapa bilduma. 2. Txerri emea. Modu atzizkia. 3. Santuren apokopea. Askatu eta ihes egin. 4. Gipuzkoako ibaia. Toki hartan. 5. Estrontzioaren ikurra. Eskua erabiliz. Azalekoa ez dena. 6. Etenaldi. Hizkuntza baten deskribapena. 7. Eztia ekoizten duten intsektuak. Esaka. 8. Gorputz geometriko. Langile.

Goitik behera:

1. **Argazkian**. 2. Nota. 3. Tanino. Noren atzizkia. 4. Zakur. Lurpeko tren. 5. Gasolioa. 6. Ar sortzaileak. Zinemako estralurtar famatua. 7. Errusiako ibaia. Nafarroako herria. 8. Ura biltzeko tokia. 9. Enda. 10. Sorbald. Minerala. 11. Sasitza. 12. Zerbait banatzen den zati bakoitza. 13. Kinina ateratzen den zuhaitza. 14. Zuzen ez dagoena. 15. Nazionalsozialista.

Kike Amonarrizen umorea

Ardozaleen bilera

Duela gutxi, Bilbon egin zen ardozaleen azoka batean, Aragoiko, Landetako, Gaztela-Mantxako eta Arabako Errioxako ardozale batzuek elkar ezagutu eta bertako jatetxe ezagun batera bazkaltzera joan ziren.

Mahaian eseri eta zerbitzariak zer edan behar zuten galdetu zientean, aragoiarrak honela eskatu zion:

– Niri atera Cariñena bat, mesedez.

Berahala, Landetakoak:

– Eni, otoi, Tursan bat.

Gaztelauaren ahotsa entzun zen ondoren:

– Nik Ribera de Duero bat nahi nuke...

Errioxarra isilik zegoela ikusita, denen begiradak harengana zuzendu ziren:

– Eta niri Heineken bat, mesedez!

Denek harriturik begiratu zioten, eta isiltasun lipar baten ondoren, errioxarrak:

– Inork ez badu ardorik edan behar, nik ere ez!



Sudokuak

Erraza

6			5				9	
	9	2			7	1		6
	7	8	6	9		2	5	3
	6	9	2		3		8	1
8	2		1		9		7	5
4	1		8		6	9	3	
2	8	6		3	5	7	1	
9		1	7			3	6	
	4			1				8

Zaila

7		1	9					3
	5				6			
	8			5		7		
			2			1	3	9
3	9	8			4			
		4		3			1	
			5				9	
1					2	8		6

Soluzioak

3	4	7	9	6	1	5	2	8
9	5	1	7	2	8	3	6	4
6	2	8	6	4	3	5	7	1
4	1	5	8	7	6	9	3	2
8	2	3	1	4	6	5	7	9
7	6	9	2	5	3	4	8	1
1	7	8	6	9	4	2	5	3
5	6	2	3	8	7	1	4	9
6	3	4	5	1	2	8	9	7

Erraza

1	3	5	4	9	6	2	8	7
8	2	7	5	6	1	3	9	4
9	6	4	8	3	7	2	1	5
3	8	6	1	4	5	2	7	9
5	1	2	3	7	9	4	6	8
4	7	6	2	8	5	1	3	9
6	8	9	1	5	3	7	4	2
2	5	3	7	4	6	9	8	1
7	4	1	9	6	2	8	5	3

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Moro, Adas 2. Aharda, Ro. 3. San, Izunt. 4. Urumea, Han. 5. Sr. Eskua. 6. Sakon. 7. Tarte, Gramatika. 8. Kono, Trabaiari. **Goitik behera:** 1. Masurak. 2. Oharra. 3. Tanu. 4. Or. Mero. 5. Diesel. 6. Atrak. 7. Taz. 8. Uhar. 9. Arraza. 10. Soia, Mera. 11. Sas. 12. Ahal. 13. Kina. 14. Oker. 15. Nazi.



Zortzikoa (goiko argazkian), andre guztiek egiten dute dantza aldi berean. Kontrapasa dantzatzaren bitartean (ezkerrean), gizonak ateratzen dituzte plazara. Denek elkarrekin fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte gero (eskuman).



Egun batez, andreak Deustuko plazaren jabe

XIX. MENDEAREN ERDIALDEAN udalerririk independente zen Deustu, baina, arrazoiren batengatik —orduko kronikagileek ere esplikatu ezin zutena—, jailetako egun nagusia, San Pedrokoan zehatzagoak izateko, Bilboko alkatea joaten zitzaizkien agintari nagusiaren plantak egitera. Ez zuten hori gustuko deustuarrek, eta egun hartan ospatzeko askorik ez zegoela erabakita, San Pedro osteko lehen domekara eroan zuten euren jai nagusia. Eguerdiko ekitaldi garrantzitsua zortzikoa zen, baina ezohikoa, emakumeek dantzatzeko zuten eta. Aurrekua, hau da, lehen toki, herriko emakumezko dantzari onenarentzat zen.

Galdutako ohituraren berri eduki zuen Iñaki Irigoien historialari eta folklorean adituak, *Revista pintoresca de las provincias Bascongadas* aldizkari-ko 1846ko ale batean ikusita, eta Deustuko Bihotz Alai dantza taldeari proposatu zion ohitura hura berreskuratzeko. Baita egin ere. 1999tik, Deustuko Andreen Aurrekua egiten da urtero, aspaldi Bilboko auzo izatera behartutako herrian.

Jai nagusiak Sanpedroetan egiteko ohitura ere galduta dago Deustun. San Jose da orain aitzakiatzat jartzeko den santua; aurreko Jaurlaritzak lanegun buruzuri izendatu zuenetik martxoaren 19a, egun horren aurreko igandea hautatu dute deustuar andrazkoek plaza bereganatzeko. Joan den igandean ikusitakoaren kronika ere baduzu hau, hortaz.


Aurrekua 1999an itzuli zela esan dugu, baina aurretik, bi urtez, berreskuratzeko lan handia egin behar izan zen. Edo hobe birsortze esatea. XIX. mendeko dantza hartaz *Revista pintoresca*-ko aipua baino ez zuten, Bihotz Alai taldekoek eta zeregin horretan lagundu zietenek zerbait erabat berri asmatu behar izan zuten. Asmatu edo... Jakin bazekiten behintzat emakumeek behar zutela protagonista; Deustun, ia inon ez bezala, andreei dagokie desafioa eta zortzikoa egitea, eta haiek ateratzen dituzte gizonak dantzara Kontrapasak dirauen bitartean, eta ez alderantziz. Gero, esku aldatzekoan, neskak dantzatzeko du mutilaren aurrean, eta neskak opari-

tzen dio txokolatzeko gozoki bat mutilari, denek elkarrekin fandangoa eta arin-arina dantzatu eta gero. Koreografia asmatua da, eta urratsak zein doinuak tradizioaren tegi zabaletik aukeratuak. Oraingo urratsak eta XIX. mendekoak ez dira berdinak, noski, baina urtez urte gorde izan diren tradizioen kasuan ere hala izaten da, pentsa...

Dantza talderik ez zegoen Deustun XIX. mendean. Gaur egun bi daude, baina ohitura hau, orduan legez, herri osoarena izan dadin gura izan dute. Horregatik edozein andrazko dantzatzeko atea ireki dute. Urtero, Bihotz Alai hiru aste-buruko ikastarotxo eskaintzen du dantzan bereziki trebatuta ez daudenentzat, eta gainerakoa hurrertzen diren emakumeen esku —eta batez ere, oin— geratzen da. Baita jantzia ere, “tradizional” adjektiboa merezi izateko baldintzak betetzeko. Hobeto ulertzen da goiko argazkiei begiratuta. ■

Unai Brea





Euskal Herria ezagutuz

URDIÑARBE (ZUBEROA)

Garaibi ibar esküinera, arotz kantaria bidelagun

Basabürüko ibar esküinaz, hots Aloze eta Lakarri herrien artean luzatzen den haranaz, askok dakite berri. Haatik, bertakoek salbu, nork daki Arbaila eskualdeak ere baduela bere ibar esküina? Hori Urdiñarbe herriari –zati bati dagokionez behintzat– lotuta dagoen Garaibi auzoan kokatua da.

Leku guztiz xarmagarri eta kanpotiarretatik ezezagun horretara ihesian joateko, Jean-Mixel Bedaxagar kantari ezaguna izan dugu bidelagun. Goazen, bada Garaibi ibar esküinera.

Testua eta argazkiak:

| ALLANDE SOKARROS |

Jean-Mixel Bedaxagarrek lagundu digu txangoan. Beheko argazkian, Organbideko gurutzearen ondoan ageri da urdiñarbetar kantari ezaguna. Bedaxagar gogoratzen da leku honetarako prozesioak egin izanaz.



URDIÑARBEKO arrabotü edo pilota plaza ederretik hasiko gara oinez ibiltzen, alde batetik San Mixel eliza erromanikoa eta, bestetik, Donajakobeko sentorale bideen aipagunea eta udaletxe berri-berria izango ditugarik begirari. San Mixel eliza XI. mendekoa da, zati zaharrenaren kontutik bederen, eta barrualdetik ere ikuskatzeak balioko luke, Zuberoako eliza anitz bezala ez balitz kasu gehienetan itxita. Egoera damugarri horri aurre egin zion bakarra Aita Junes Casenave-Harigile euskaltzale suhar eta Altxaiko erretore ohia izan zen, honek agindu baitzuen bere ardurapeko parrokiako elizak berriz zabalik egon zitezen. Dena den, elizaren inguruko auzolagunen batek izango du giltza eta ez da bekaturia izango ikuskatze baterako irekitzearen eskaria egitea...

Eliza aitzinaldearen pare-parean, Urdiñarbeko udaletxe berri eta nahiko politari ere begirada bat emateak balio du. Eraikin hori bezala, Zuberoako etxegintza garai-kidearen lekuko da, halaber, udalak paratutako Donajakobeko sentorale edo beila bideen aipagunea. Bastimendu horretan bertan kokatzen dira ere ikusgarrientzako gela eta herriko ostatua, azken aldiotan, antza, itxita dagoena. Donjabeko sentoral bideak aipatzen hasi baikkara, gogoraz dezagun Urdiñarbe izan zela, aurreko garaietan, beila bide horietatik baten igarogune edota geldigune garrantzitsua, Zuberoako Ospitalepea eta Oztibarreko Izura ospe handiko beste bi lekuren artean. Hain zuzen ere, orain dela bospasei urte berriz ireki ondoren seinaleztatu egin den GR 78 Bortuondoko sentorale bidea hartuko dugu zati batean.

Ospitalettotik Keheillaltera

Arrabotü edo pilota plazatik abiatzean, haatik, ez dugu San Mixel zubiaren gainetik pasazten gaituen eta zuri eta gorriz seinalatutako ezkeralderako bidea aukeratuko. Aitzitik, eskola aurretik pasatuz, eskuinalderat, Garaibirako bide nagusia hartuko dugu. Hortxe berehala, eskuinaldean ageri den etxe zahar eta bizilagunik gabekoak Ospitalettoa du izena. "Hau zen



Goiko argazkian: Urdiñarbeko San Mixel eliza erromanikoa, SanMixel zubia eta eliza inguruko etxe dotoreak. Behean: Eihartzea etxaldea, zuhaitz artetik ikusia.





Garaibiko paraje ederrak. Urrunean, Maidalena eta Erretzü mendixkak elurpean.

Urdiñarbetik iragaiten ziren beilarrien aterpetzeko eta artatzeko ospitalea edo honen zati bat behintzat”, azaldu digu ibilaldi honetan bidelagun daukagun Jean-Mixel Bedaxagar Urdiñarbeko arotz eta kantari ezagunak.

Ospitalettoaren pare-parean, bidearen beste aldean eta eskolaren atzean dagoen beste etxe handi eta zaharra Komandatetxea zen. Bidean aurrera jarraituz, Arangorena errekatik ura ubide baten bitartez hartuz zebilen eihera edo errota ederki zaharberritua miretsiko dugu. Hau, Urdiñarbeko Ospitalearen jabetzapeko errota zegoen antzina, eta bigarren egoitza bat da gaur egun. Hiruzpalaurehun metro soro muskerren artean eginik, bidearen eskuin alde bazter-bazterrean dagoen baserri dotore batera iritsiko gara, ibilaldia hasi eta hamar minutura. “Hau da nire sortetxea”, adierazi digu Bedaxagarrek, “familian arotzak izan ginenetik aroztegia deitua izan da, baina jatorrizko izena du Keheillalte”. Izen hori ematen zioten, antzina, elge edo auzoen arteko bazka edo alor guneen sarrera zaintzeko kargua zeukan etxaldeari. Keheillalte aurretik igarotzean auke-

rarik izango duzue agian bertan bizi eta lan egiten duen Jean-Mixelen arreba Marie-Hélène Bedaxagar eta haren senar Dominika Agergarairen agurtzeko.

Keheillaltean Urdiñarbeko plaza-tik seinalatua egin duten GR 78 sentorale bidearekin egingo dugu topo eta horri jarraituko diogu txangoaren zati luze batean. Garaibirako bide nagusitik ibilita, Urdiñarbeko karrika edo eliza ondoko etxe multzoari bizkarra ematen diogula, eskuin eta ezker aldeetatik Zuberoako lehengo eta gaur egungo etxegintza motak begi-bistan izango ditugu. Ezker aldetik eta bidetik beheiti, Iratzabalea laborari etxe ederra daukagu eta eskuinaldetik baserriak ez diren baina Zuberoako etxegintza bereziaren lekuko egokiak dauden etxe politak. Garaibiko bide nagusi horretan hiruzpalau ehun metro eginik, ez diogu huts egin behar eskuin alderat joatera gonbidatzen gaituen bide seinaledunari. Hortxe bertan etxe zaharberritu polit bat badugu, eskuinaldetik. Haatik, seinale zuri eta gorriei jarraituz beti ere, lehen bide sarda horretatik segidan ezkererantz joango gara bide harriztatu batean.

Organbideko kurutzeta, antzinako prozesioen jakile

Bidexka horretan behin sartuta topatuko dugun lehen etxea da Betranenea izenekoa. Gaur egun, urtearen parte handiengan behintzat bizitzailerik ez duen etxe zahar polit horrek egoiliar ezagunak izan ditu XX. mendean. Hala, bertara zetozen 1967. urtean Femina literatura saria eskuratu zuen *Elise ou la vraie vie* eleberraren idazle Claire Etcherelli eta haren bizilagun izan zen Antoine Sanguinetti almirantea (1917-2004). De Gaulle jeneralaren alde jarrita, Frantziatik aleman naziak haizatzean parte hartu zuen eta gerorago politika alorrean jardun zuen, ezkerreko asmoak aldarrikatuz.

Bi pertsonaia entzutetsu haiek gogoan ditugula, aurrera joango gara eta aldapa nahiko malkartsu baten ondotik, bidexkak Organbidea baserri ingururaino eramanez gaitu. Han, kontuz; GR 78 bitan zatitzen da, biak, haatik, Oztibarre bidean aurrera joaten direlarik. Eskuinerantz bide txiki batean gora jarraitzen duen bidexka seinalatua Muskildi aldera doa, eta San Antoni eta Elodi mendixken arte-

ko Ehüzako garatetik igarotzen da, Donaixtirako norabidean. Guk, aldiz, bide seinaledun horren bigarren aukerari eutsiko diogu, Organbideko gurutzean zuzen jarraituz. “Kurutzte honetaraino, Urdiñarbeko elizatik abiatuz, prozesioak egin izanaz oroitzen niz”, esan digu Jean-Mixel Bedaxagarrak. Ez zen txantxetako ibilaldia, bizpahiru kilometroko luzera baita buru batetik bestera.

Organbidetik aurrera, xenda oso polit eta gozagarri batetik ibiliko gara. Bidezidorra lapitz eta arbel arrokan egin zuten aspaldian. “Urdiñarbeko karrikatik Garaibi ibar esküinerako bide zaharra da”, azaldu ditu Jean-Mixel Bedaxagarrak. Lehenagoko denboretan baserri bat zegoen baina gaur egun Organbidea etxaldeko borda bat den Xokoeneoraino xenda hori erabilgarria egon bada beti, handik aurrera sasiak hartuta zegoen. Bortuondoko Donajakobe bide berria egitea mesedegarria izan da, xenda zaharrari bizia eman baitio. Benetan gustagarria da hurritz, gaztainondo, haritz eta beste zuhaitz mota frankoren artean aitzina joatea, zati luze batean ere etxalde edo bordalde bazterretan denbora batean laborariek eraikitzen zituzten paretia zahar-zahar baten ertzetik ibiliko garelarik. Xendan zehar jarritako bizpahiru langa txiki ireki eta berriz itxi beharko ditugu. Hori ez da arazo bat, bai ordea horiek ireki eta berriz ixteko gomendioak izan daitezen frantsesez eta ingelesez soilik idatziak! Badirudi GR xenda seinaledun horiek egiten eta mantentzen dituzten jendeek ez

dakiten Euskal Herria eta euskara badaudela eta gutxien-gutxieneko errespetua litzatekeela herriko hizkuntza ere erabiltzea. Jende mota horrek bere burua “unibertsaltzat” jotzen du ziur asko... azken finean inongoak ez direla ohartu gabe ere.

Ohitxeko eihera txiki eta polita

Zuhaitz ilararen artetarik, Zuberoako hainbat mendi eta mendixka (Maidalena, Erretzü, Arbailakoak, besteak beste), baita Añamendi eta bere lerrokoak mirestea aukera ere emango digu xenda goxo eta politak. Jaitsiera baten amaieran, baina, agur egingo diogu, Garaibi ibar esküineko bide txikiarekin topo egitean. Bide horretara iritsirik, GR 78ko seinale zuri eta gorriek ere bizkarra emango diegu, ezker alderat (ekialderantz) hartuko baitugu, Ihitiko edo Ibar esküineko errekarri jarraituz. Une batean, gutxi gorabehera ordu eta erdi darماغularik txangoan, Napaleko garaterat daraman Garaibiko bide nagusiarekin topo egin aitzin Ohitx etxaldeko eihera edo errota txiki polita agurtuko dugu. Lehengo denboretan ogia etxean egiten zen eta erreka txikienean ere eiherak bazeuden. Pentsa... Zuberoa osoan 400 errota inguru ibili zen garai batean!

Zentzegia etxearen alboan Garaibiko bide nagusira iritsirik, berriz ere ezker alderat joko dugu eta bizpahiru kilometro geratuko zaigu Urdiñarbeko eliza ingurura bueltatzeko bidean. Ezker eta eskuin, Garaibiko haran ederreko etxalde oparoetatik batzuk (Etxandia, Etxe-



Ohitxea etxaldeko eihera (errota).

barnea, Bidabea, Iratzabalea) mirestea aukerarik izango dugu. Keheillaltera iritsirik, aldi honetan bai, eskuin alderat hartuta jarraituko diegu seinale zuri eta gorriek, bi ordu eta bi ordu eta erdi inguru iraun digun ibilaldi goxoari amaiera ematean. Zoritzarrez baina, Urdiñarbeko karrikan bertan gaur egun ez dago tabernarik Jean-Mixel Bedaxagarrarekin Zuberoako kantu xahar batzuk xaramelatzeko... ■





AP PHOTO/DAVID GUTTENFELDER

Fukushimako langileak.

Fukushimara bisitan, ezinbestean labor

BI URTE IGARO DIRA Fukushima zentral nuklearra lehertu zenetik, eta 27 Txernobyleko istriputik. Azken horretan bigarren estalkia eraikitzen ari dira, eta itxura guztien arabera elementu erradioaktiboen kanposantu bihurtuko da. Fukushiman, berriz, erreaktoreen inguruko zaborrak biltzen ari dira oraindik, eta barruan dauden erregai barrak nola eta nora atera hipotesi hutsa dira.

Berriki, leherketaren bigarren urtea betetzearekin batera, TEPCO enpresa japoniarrak eta zentralaren jabeak zentrala ikustera gonbidatu zituen kazetariak. Fukushimatik 50 kilometrora dagoen Iwaki hiriko hotel batetik abiatu ziren kazetari horietako batzuk. Autobusez egin zuten bidaia eta bidean kontrol erradiologikoa egin zieten, hasieran eta amaieran; bitan aldatu behar izan zuten arropa, eta bigarrean aurpegiari itsatsitako maskara jarri zieten. Ikusitakoak zabortege handia zirudien, eta erreaktoreen inguruan ordubete baino gehiago ez zuten egin, bertako erradioaktibitate-maila jasanezina baita. 3.000 langile inguru ari dira lanean, edo etengabeko joan-etorrian, lan egitea zaila baita. Batetik, jantzi behar dituzten arropak deserosoak direlako, bestetik badirelako minutu gutxian egin beharreko hainbat lan, gehiegizko erradioaktibitatea jasan nahi ez bada.

TEPCOko teknikarien azalpenak egiten ari diren lanen inguruak izan ziren, eta ez zuten ezkutatu lan horien segurtasun falta. Badirudi zintzo ari direla lanaren zailtasunak aipatzean, baina beste intentzio bat ere izan daiteke zintzotasunaren atzean: arazo gaindiezinak topatuz gero, irtenbide posible bakarra erregaia milaka tona porlanen azpian uztea izan liteke.

Ildo horretan, aipatzekoa da Garoñako jabea den Nuclenor enpresak Banakako Behin-behineko Gordailua eskatu duela material erradioaktiboa bertan lagatzeko. Zentrala eraisteko derrigorrez eman beharreko urratsetako bat da hori. Espero dezagun gordailua behin-behinekoa izan arren, Garoñaren itxiera behin betikoa izatea. ■



Nola funtzionatzen du zigarro elektronikoak?

Asko dira zigarroak erretzeari uzteko bideak. Horietako bat zigarro elektronikoa erabiltzea da. Txinan 2005. urtean asmatutako tresnak zigarroaren erreketak simulatzen du: sua piztea, kea usaintzea, ahoan izatea... benetako zigarroa dirudi. Ikus hemen nola lortzen den hori.

ttiki.com/48483
(Frantsesez)

Egitura mikroskopikoak 3Dn inprimatzeko orain arteko tresna azkarrena

Alemaniko Nanoscribe GmbH enpresak aurkeztu berri duen 3Dko inprimagailua munduko azkarrena da egitura nanoak inprimatzen. Ile baten diametroa duten egiturak lehen baino 100 aldiz azkarrago inprimatu daitezke orain.

ttiki.com/48484
(Gaztelaniaz)

Zergatik dira sarda bateko arrainak tamaina berdinekoak?

Sydney (Australia) eta Mount Allison (Kanada) unibertsitateetako ikerlari talde batek aztertu egin du arrain sardetan arrainek tamaina berdina edo oso antzekoa izatearen arrazoiak. Horrek hainbat abantaila ematen die sardako kideei. Ikerlarion arabera, arrainen sentso naturala dago gakoak.

ttiki.com/48485
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zortearen sorta

ZORTEA EDO ZORIA bere alde jartzekozazpi landare gurtzeko ohitura dute Brasilen. Aldarea aldatzen dute. Landarezaleen artean bezala, aldare horietan ere denetik dago: pozoia dutenak, usain ederrekoak... Hona koadrila.

Dieffenbachia generokoren bat, ahoratuz gero ahotsik gabe ere utzi zaitzakeena. Eta zintzurtean behera pasaz gero baita ito ere. Gurtu beharko!

Bortusaia bestea, *Ruta graveolens*. Sukaldean bezala osasungintzan ere erabilia izanagatik, arriskutsua den landarea. Dituen alkaloide eta esentzia gogorrek azalean izpi ultramoreekin bat eginez gero babak eta zauri latzak sor ditzakete. Beldurrak intsektuak beregandik urruntzen ditu; zorriak, adibidez, landareenak bezala oiloenak.

Piperra, *Capsicum annuum*. Aleak beroak eta minak ematen dituen piper landarea jartzen ote dute? Berotzen edo mintzen duen zortearen landarea. Besterik ez bada, jaterakoan gozoa; nahikoa zorte!

Baita *Sansevieria trifasciata* ere. Bere itxura zorrotzagatik amaginarrebaren mihia deitutakoa. Landare gehienak hiltzeko moduko egoeretan bizitzeko gai dira. Zor-

terako bideak zailduko gaituela esateko? Amaginarrebaren mihiarekin zailduta, akaso? Aire garbitu eta oxigenatzen duela diote. Ingelesentzat sugearen landarea da. Brasilen bertan San Jorge-ren ezpata deitzen dute eta Afrikatik ekarritako ohiturari jarraiki begizkoak sendatzeko darabilte.

Sukaldeetan ere gurtuenetako *Ocimum basilicum*, albahaka, berriz, lupuak heltzean minik ez izateko jaten dute. Nicholas Culpeper (1616-1654) astrologo eta botanikari ingelesak jaso zuenez, Frantzia zera esaten zuenik bazen: albahaka gehiegi usainduz gero garunean lupuak sortzen omen ziren.

Erromeroa, itsasoko ihintza ez beste urik gabe bizitzeko gai eta sendagai delako *Rosmarinus officinalis* izena duena. Oroimena hobetzeko laguntzaile ezaguna, baita ohaidea topatzeko ere. Burkopean jarritako erromero sortatxo batek amesgaiztoak uxatzen ditu, eta



MICHAEL CASTELLI-CC BY SA

Albahaka (*Ocimum basilicum*).

etxearen kanpoko aldean jarrita, berriz, sorginak. Emakumeek agintzen duten etxeetan erromero ugari, dio esaerak. Bere olioak erreuma eta lunbagoa osatzen ditu. Brasilen, okela erre behar duen txingarra bere hostoz lurrintzen dute. Sukar tifoidea gainditzen laguntzen du. Afro erlijioetan bainuetarako eta intsentsu gisa erabiltzea ez da harritzekoa.

Tipi deitzen dutena, *Petiveria alliacea*, zazpigarrena. Baratzuritankerako usainaz intsektuak uxatzen ditu. Abortu eragilea da eta etengabe hartuz gero zoramenera eraman zaitzake. Brasil! ■



Azal gorritan

SAGARRAK jan nahi ditu. Sagardoa edan nahi du. Sagastia (*Malus x domestica*) landatu du. Sagastiari garbi eusteko itxitura egin eta artalde sartzu du. Ardiak jatena tamainan eta den guztia bera, belar biguna. Belarjaleak tarteka gogorra den arba edo zurtoinen bati kosk egin behar dio. Belar gutxi eta inguruan sastraka edo zuhaixkarik ez. Ardiak zuzenean sagarrari kosk. Eta kosk. Eta luza lepoa eta kosk. Eta elorrio izango du sagarrak. Eta bateren batek ez sagar ez sagardo. ■





Ezkerrean, Veracruzeko guduko irudi bat, Mexikoren eta Frantziaren arteko Pastelen Gerran. Eskuinean, El Salvadorreko futbol selekzioa 1969an, gerra piztuko zuen Hondurasek aurkako partida jokatu baino lehen.

Gerra bat hasteko aitzakiarik behar duzu?

SAN JUAN UHARTEAK (EGUNGO AEB), ATLANTIKOA, 1859. AEBetako ipar-mendebaldeko artxipelagoan kolono britainiar nahiz estatubatuarrek bizi ziren, eta bi potentziak uharteak mendean hartzeko ahaleginetan ari ziren. Lyman Cutlar izeneko kolono estatubatuarrek zerri bat ikusi zuen bere patata saila zapaltzen, eta tiro egin zion; zerria britainiarra zen. Agintari britainiarrek urdearen hiltzaila atxilotzeko agindua eman zuten, hark kalte ordainak ordaindu ezean.

Kolono amerikarrek armadari laguntza eskatu zioten orduan, eta armada estatubatuarra borrokarako prest bertaratu zen. Maniobrari erantzunez, britainiar gobernadoreak gerraontzi bat bidali zuen uharteetara. Hala, afera nahasiz joan zen pixkanaka, uharteetan 400 soldadu estatubatuar gotortu ziren, kostalde parean milatik gora soldaduz osatutako flota britainiar txikia bildu zen... eta bat-batean norbaiti bururatu zitzaion zerri bat ordaintzea gerra bat hastea baino merkeagoa eta errazagoa zela. Nazioarteko gatazka piztu baino lehen apaldu zen, biktimak bakarrik eraginez: zerria. Handik urte gutxira AEBek eta Britainia Handiak Wilhelm I.a kaiserrari bitartekaria izateko eskatu zioten eta hark erabaki zuen irla multzoa AEBen eskuetan uztea.

Hogei bat urte lehenago beste aitzakia ergel batek Mexiko eta Frantziaren arteko gatazka piztu zuen, eta orduan ez zuen inork geldiarazi. 1832an Santa Anna presidentearen

ordezkari batzuek Remontel izeneko sukaldari frantziarraren jatetxean pastel batzuk jan zituzten eta kontua ordaindu gabe alde egin zuten. 1838an Deffaudfis baroiak, Frantziak Mexikon zuen enbaxadoreak, hainbat eskaera jaso zituen, besteak beste Remontelena. Mexikoko Gobernuak ez zien eskaerei erantzun eta urte hartako apirilaren 16an Pastelen Gerra piztu zen. 1839ko martxoaren 9a arte luzatu zen gatazka, 6.000 soldaduk parte hartu zuten, eta 200dik gorako hildako izan ziren.

Gerrari aitzakia eta izena eman ziotena Remontelen pastelak izan arren, horren atzean arrazoi sakonagoak zeuden, jakina: Frantziak merkataritza abantailak lortu nahi zituen Erdialdeko Amerikan, eta Mexikoko gobernuaren eragozpenekin egin zuen topo.

Eremu berean, baina XX. mende betean, futbolak piztu zuen metxa. 1969ko ekainaren 27an, Mexiko Hirian, El Salvadorrek eta Hondurasek 1970eko Munduko Koparako sailkatzeko partida jokatu zuten. El Salvadorrek 3-2 irabazi zuen eta amaieran zaleen arteko liskarrak izan ziren. Urte hartan Hondurasko nekazaritza erreformak El Salvadorreko milaka nekazariren deportazioa eragin zuen eta, giroa pil-pilean zela, uztailaren 14an El Salvadorreko armadak Honduras eraso zuen. Lau egun besterik ez zuen iraun, baina 2.000 hildako eta 15.000 zauritu eragin zituen. ■



Arrastoak

King Kongek 80 urte bete ditu

MERIAN C. COOPERren *King Kong* filma 1933ko martxoan estreinatu zen New Yorken. Filmeko protagonista, Kong gorila erraldoia, Cooperrek berak sortu zuen, Edgar Wallacekin batera, eta estreinatu eta berehala zinemaren klasiko bihurtu zen. Filma egitea 672.000 dolar kostatu zen, eta 1933ko estreinaldian aurrekontua hirukoiztu zuen. 1941 bitartean beste milioi bat bildu zuen gorilaren maitasun istorioak. Zinemaren akademiaren saririk ez zuen jaso, efektu bereziak saritzeko oscarra ez baitzuten 1938a arte sortu, baina King Kongen eraginez hasi ziren atal horrek ere ordaina merezi zuela pentsatzen. AFiren arabera inoizko 100 film onenen artean 43.a da. ■



VINTAGE COOL ILLUSTRATED

King Kong film orijinalaren afixa.

JANN-MARC ROUILLAN

«Umiliatu nahi gaituzte, gauarekin atera, atzeko atetik»

MIL, GARI eta Action Directe talde armatuen sortzaile, mende laurdeneko kartzelalditik ateratzen ari da Jann-Marc Rouillan (1952, Auch, Gaskoinia). 1970 eta 1980ko hamarkadetako Europako mugimendu ezkertiar iraultzaileen protagonista eta testigu pribilegiatu, hainbat liburutan ematen ditu orain bere oroitzapenak. Borroka egiteari ez diola puska batean utziko, alegia.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkiak: Núria Juan i Serrahima



2011ko maiatzaren 19tik baldintzapeko askatasunean. Nola bizi duzu askatasuna eta baldintzapea uztartzen dituen kontraesan hori?

Debekatuta daukat sarrera Frantziako 38 departamendutan, hiri handietan. Frantziatik ateratzeko eskakizun mordo bat egin behar dut, hilabeteak itxaron, tribunalek bost egunez atera naitekeela erabaki arte. Ezin dut bizimodu arruntik eramanez, lana normal egin. Langabezian nahi gaituzte, pobre, galarazten digute eguneroko duina. Programa bat dago kartzelan egon diren militante ohien aurka, orokorra da, kide asko aurkitu ditut egoera berdinean. Ez dute orrialdea pasa nahi, eta hobeki, guk ere ez baitugu nahi. Borrokak jarraitzen du kanpoan.

Ezin duzu hitz egin gauza jakin batzuen gainean.

Debekatuta daukat kondenatua izan naizen ekintzei buruz hitz egitea. 2007ko abenduan eman zidaten lehenengoz baldintzapeko askatasuna. Baina ia urtebete beranduago, elkarrizketa batean esandakoen harira, berriz eramanez ninduten kartzelara. Lege antiterrorista kritikatu nuen, eta erabaki zuten legea kritikatzeko banuen ekintzei buruz hitz egiten ari nintzela. Zentzugabea da, baina nahi dutena egiten dute. Justizia antiterrorista indarren arteko oreka bat da. Eta momentuz haien alde dago botere harremana.

Boterea haiek badute, nola interpretatzen duzu kronologia guztia? Kanean utzi izana, berriz kartzelaratzea, oraingo egoera.

Action Directeko kideak lau ginen. Joelle Aubron oso gaixorik zegoen; 2004an atera eta bi urteren buruan hil zen. Nathalie Ménigon hirugarren gradua aplikatu zioten 2007ko abuztuan. Eta orduan ulertezina zen Georges Cipriani eta biok kartzelan mantentzea, Joelle eta Nathalie baino kondena laburragoa baiduten. Ni atera ninduten, beraz, eta ez zitzaion batere gustatu: bueltan barrura sartzeko aitzakia aurkitu zuten. 2011n atera nintzen, azkenik, Georges ondotik. Borroka gogorra izan da. Hainbat lagun oroitzen ditut, Georges Ibrahim Abdallah, 29 urteren ondoren oraindik

barruan dena. Eta euskal kide asko, Frederic Haramboure, Jacques Esnal, aspalditik kartzelan, aspaldian kanpoan beharko luketenak.

“Borroka armatua egoera bati lotutako zerbait da. Mugimendu autonomoen 1977-1978ko ofentsibarik gabe, ez zen sekula izango Action Directe”

25 urte kartzelan, MIL eta GARiko garaiak kontuan izan gabe. Esateak bakarrik beldurra ematen du. Nola gogoratzen dituzu?

Kartzela borroka da, eutsi egin behar zaio, iraun, bestela akabatuta zaude. Lehen egunetik, komisaldegitik, kolaboratzaera behartzen dituzte preso politikoak, zigor gogor baten mehatxuarekin. Gu berehala kondenatu gintuzten bizi arteko zigorrera, edozein kolaborazio errefusatu genuelako. Eta zazpi urte itxaron zituzten gure prozesua berrartzeko, zazpi urte horietan gure kontrako errepresio handia eginez, isolamendua, mehatxuak, jipoiak. Espero zuten taldearen irudia urtuko zela. Lehen garaipena izan zen zazpi urteren buruan isolamendutik atera eta jarrera kolektiboa izan genuela. Inportantea zen erakustaldi hori egitea. Uneoro atera izan dute gaia gero: borroka armatuaren kritika, damua. 2010ean oraindik esan zigiten testu bat egiten bagenuen, gure ekintzak kritikatzeko, borroka armatuaren bidea errefusatzeko, kartzelatik atera ahalko ginela.

“Euskal Herriko egoera koloniala zen, Kataluniakoa bezala. Erabat logikoa da Frantziako ezker muturrak nazio askatasunerako mugimendu bat sostengatzea”

Jo dezagun atzera, Okzitaniako Tolosara, nerabegarora. Elementu asko nahasten ziren bertan: 68ko maiatzaren ingurukoak, baina batez ere borroka antifrankista.

Bi xantza izan ditut nire bizitzan; bat, 16 urte izatea 1968an; bestea, gorrien hiriburuan bizitzea —eta gorriak ziren Francoren aurkako borrokan aritu eta Tolosan erbesteratuta zeuden guztiak, euskal herritar asko tartean—. Lizeoan elkarrekin ibili ginen hiru gaztek akzio komiteak sortu genituen. Armen galdera pausatuta genuenean, bi aukera genituen: Donostia edo Bartzelona. Ez gehiago. Argi zegoen ez ginela Parisera joango. Burgoseko prozesuaren garaiak ziren. Gerrilari ohi batzuek ETAKoen kontaktua eman ziguten. Eta, hara, egin nuen lehen ekintza klandestinoa, 70. urtean, Langileak inprimatzea izan zen, ETA VIKoen agerkaria, Tolosako gure inprimategi klandestinoetako batean. Burgoseko prozesuko laguntza bileretan ezagutu nuen Oriol Solé Sugranyes, eta ETA VIKo arduradun batek esan zigun fronte bat ireki behar zela Bartzelonan. Hasi ginen pentsatzen nola egin borroka armatua Bartzelonan, Euskal Herrian gertatzen zenarekin lotuta. Horrela sortu zen MIL.

Zergatik zegoen hain argi Katalunia edo Euskal Herria? Bestela esanda, zergatik ez zen jaio Action Directe 1970ean?

Borroka armatua egoera bati lotutako zerbait da. 68ko maiatzetik gabe ez zen izango borroka armaturik Alemanian, Italian. Mugimendu autonomoaren 1977-1978ko ofentsiba izan ez balitz, ez zen sekula izango Action Directe. Gazte batzuek esaten dute orain 70-80 urteetan baino baldintza gehiago dagoela borroka armatua egiteko. Baina borroka armatua ez da gauza mekanikoa, baldintza subjektiboak behar dira, mugimenduaren ofentsiba bat, esperientzia, faktore asko. Kartzelatik atera nintzen lehen aldian gaia oso ahul zegoen, baina orain gauza pertinenteak entzuten ari naiz. Eta galdera pausatzen dugunean erantzuna dagoeneko barruan dago, galdera hori pausatzen duen jendearen hausnarketan

badago jada soluzio bat ernatze bidean. Antiterrorismoaren jarrera hain ofentsiboa, gainera, nahiz eta terrorismoa ez izan orain inportantea, zerbait pasako dela sentitzen dutelako da. Eta uste dut gutxi-asko Euskal Herrian gauza bertsua gertatzen dela, dena kontrolpean nahi dutela, pasa daitekeenagatik.

Nola ikusten zenuten zuek, ezker erradikalaren mugimenduetatik, ez bakarrik ETArekin, oro har euskal herri-tarren jarduna, erregimen baten kontrako borroka zena, baina baita identitate propio baten defentsarena ere?

60. urteen amaieran, 70en hasieran, ETA oso popularra zen Frantziako ezker muturraren baitan. Baina mozketak bat izan zen. 1973an Frantziako ezker muturrak bi gauza kapital errefusatu zituen: lehenik, nazioarteko langile mugimenduaren errealitatea babestea; eta bigarrenik nazionalismoak laguntzea. Errefusa horietatik dator borroka armatuaren posizio guztien abandonua. Frantziako ezker muturreko programa iraultzailearen bukaera izan zen. Momentu hartan ETA oraindik popularra zen, 1977ra arte. Eta gero ETA defendatzen duten bakar-rak dira Autonomoak, borroka armatuaren galdera pausatu zutenak. Ulergaitza zait. Ezker muturreko mugimendua jaiotzen da askapen nazionalen eta antiterrorismoaren laguntza borroketan. Eta Euskal Herriko egoera koloniala zen, Kataluniakoa bezala. Orduan erabat logikoa da Frantziako ezker muturraren baitan nazio askatasunerako mugimendu bat sostengatzea. Gaur egun askok ez du ulertzen nola egin daitekeen borroka estatu baten eraikuntzaren alde. Beraz, ez ditugu palestinarrek gehiago sostengatzen? Nazio askapenerako borroka batean lehenengo egiten duzu estatu aske bat, printzipio iraultzailearen oinarria da. Eta gero nahi baduzu jarraitu burgesiarren kontrako borrokan.

Zer irakurketa orokor egiten duzu ETArekin 50 urteko jardunaz, eta indarkeriaren behin betiko amaieraz?

Amaieraren aldeko jarrera izan dut. Jakitun naiz garai batetik honako



“Antiterrorismoaren jarrera hain ofentsiboa, zerbait pasako dela sentitzen dutelako da. Euskal Herrian gauza bertsua gertatzen da, dena kontrolpean nahi dute, pasa daitekeenagatik”.

zailtasunez. Pentsatzen dut onena zela lehen prozesu hau bukatzea, eta hastea presoak askatzeko negoziazioan. Gauza inportantea baita koadro politiko horien indarra mugimendu legal batean. Esperientzia handia dute borroka politiko erreala eramateko. 50 urte izan dira, gera daiteke borroka armatua, ez da desohore bat. Baldintzak aldatu dira, baina behar da taktika politiko estrategiko bat, ahalbidetuko duena borroka politikoaren fase hau kudeatzea. Leninek, partidu boltxe-

bikearen arrakastagatik galdetuta, esan zuen: “Gure partidua izan da legala, ilegala, armak hartu ditu, armak utzi ditu, parlamentura joan da”. Esperientzia izugarria zuten, horrexegatik iritsi ziren Neguko Jauregira. Eta bake prozesu baten lehen erantzuna da hauteskunde garaipen bat, eta hauteskunde garaipen gero eta gehiago gero. Badago 50 urteko historia bat. Eta inork egin badu ezer Euskal Herriagatik ETA izan da, eta ez besteak, pazifismoaren, legalismoaren bandera-



“Pentsatzen dut ETaren garaipena ez dela momentuz posible, garai ultraerreakzionario bat bizi dugulako. Ez da garaipenatarako garaia, inorentzat. Baina bake prozesua ez da ETaren porrota. Porrota da Espainiak prozesuaz egiten duen tratamendua, erridikuluan ari dira nazioarteko iritziaren aurrean”.

pean aurkezten diren horiek. Orain afera politikoa kudeatzeko garaia da, jakinik soilik espainiar eskuinarekin egin daitekeena, ezkerrek beti izango baitu eskuinaren oposizioa.

Presoen kaleratzea aipatu duzu eta Espainiak eskaintzen ditu irtenbide indibidualak; damuaz, barkamenaz hitz egiten da.

Action Directeko kideon artean adostu genuen ez zela irtenbide indibidualik izango, sartu ginela

borroka politiko bat eramateko, eta irtengo ginela soluzio kolektibo batekin. Ez da satisfazio bat, baina kontent naiz azkena irten izanaz, ez dudalako inor atzean utzi. Hasten bazara barkamen eta gisakoekin, Espainiako Gobernuak barkamena eskatu behar du Euskal Herriaren okupazioagatik, hildako, tortura-tuengatik. Batek esan dezake hori gertatu arte berak ez duela barkamenik eskatuko. Borroka bat izan da, hildakoak izan dira alde guztie-

tan, gauza justua litzateke. Armak hartu dituztenak ere biktimak dira, edo, hobeki, armak hartu dituzte biktima berriak ez izateko. Kontua da beren arauak ere ez dituztela errespetatzen. Alemaniaren historian ikusi dugu: hogeitaz gero zehar esan zuten Rote Armee Fraktionek armak uzten bazituen presoak askatuko zituztela. RAFek armak utzi ostean 4-5 urtez luzatu zuten presoan askatzea, bazekitelako garaipen izugarria litzatekeela. Aitortza ez dute nahi, umiliatu nahi gaituzte, gauarekin atera, atzeko atetik. Pasa nahi duten ideia da ez digutela ongi etorria egiten. Ez dituzte nahi 10.000 lagun Martutene aitzinean.

50 urteko borroka logika baten ondotik, ez ote da gutxi soilik presoan irteera duin bati buruz hitz egiten aritea?

Etap bat baino ez da. Pentsatzen dut ETaren garaipena ez dela momentuz posible, garai ultraerreakzionario bat bizi dugulako. Ez da garaipenatarako garaia, inorentzat. Baina bake prozesua ez da ETaren porrota. Porrota da Espainiak prozesuaz egiten duen tratamendua, erridikuluan ari dira nazioarteko iritziaren aurrean. Bake prozesua da eta ez dago negoziatzeko ezer, ezin zaio halako koherentzia bati eutsi. Nik uste dut Euskal Herria oraingo gisan existitzen dela 1959an gazte batzuk izan zirelako eta presio handi bat egin zutelako Espainiako Estatuarengan. Gutxiarik dago autonomia, eta lehen bidea da independentziarako. Egunen batean Espainia lehertuko da. Orain mantentzen da indarraren boterea bere alde dagoelako.

“Ametsak hautsi ez izana” aitortzen diozu zeure buruari, 70ean, armen aldeko apustua egitean; esango zenuke gauza bera gaurko egunetik?

Esperantza handiak dauzkat oraindik. Mende laurdena pasa dut kartzelan, lehen baino zaharragoa naiz, gaixo nago, baina prest jarraitzen dut abentura iraultzaile guztietarako. Abentura iraultzailea edozein unetan gerta daitekeela jakitun, gainera. ■



Mikel Urdangarin

DONOSTIA

Victoria Eugenia Antzokia

Martxoak 23. 20:00tan

Azula



Antolatzailea:



Laguntzaileak:

argia



Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net

15 €



ELGOIBARKO IZARRA EUSKARA ELKARTEA



Ezkerrean, Elgoibarko Aubixa aterpetxean udalekuetan, eskuinean Zumaiako Askizun. Aspaldiko eta ez hain aspaldiko argazkiak, helburua bera: aisialdian euskara erabiltzeko eremuak sortzea.

Ospatzeko eta kezkatzeko garaia

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea 1963an sortu zuten. Euskara bultzatzeko xedea duen elkarteak urte osoan zehar ospatuko du mende erdiko jarduna. Era berean, 2013a baliatuko dute krisiak astindutako garaiotan egitasmoa bere horretan jasangarria den ala ez hausnartzeko.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea

FELIX ETXEBERRIAK, Jesus Larrañagak eta Sabin Osorok sortu zuten Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea (Gipuzkoa). 1963. urtea zen. Urtebete lehenago ikastola abiatu zen. Sortzaileek bi helburu zituzten buruan 1963 hartan: euskararen egoera ilunari argi pixka bat ematea, eta ikastola indartzea eta babestea. Izan ere, zeharo lotuta zeuden ikastola eta kultur elkartea.

50 urteko jauzi erraldoia ematen badugu, ordukoaren antz gutxi duen egiturarekin egingo dugu topo. Elgoibarko Izarra euskara elkarte da orain, nahiz eta izena ez duen aldatu. Elkartearen lehenengo etapa militantzian oinarrituta egon bazen, bigarren honetan profesio-

nalek pisu handia hartu dute. Gaur egun, 19 langile dira, eta 600 bazkide ditu elkarteak.

Gaurko Elgoibarko Izarra ezagutzeko ezinbestekoa da atzera egitea, gutxienez 1990. urtera. 1980ko hamarkadan elkarteak gainbehera garrantzitsua jasan zuen, bi arrazoi tarteko. Batetik, frankismoaren ondoren alderdi politikoak mugimenduan hasi ziren eta euskalgintzan buru-belarri ibilitako hainbat elgoibartarrek politikagintzara jauzi egin zuen. Bestetik, ikastolaren babesean sortutako egitasmoek, hala nola, dantza eta txistu taldeek, gau-eskolak, bakoitzak bere bideari heldu zion. Eta orduko galdera hauxe: orain zer egin behar dugu?

1990eko batzar orokorrean elkartea bertan behera uztea proposatu zen, baina bi-hiru bazkidek aurrera segitzeko apustua egin zuten, 1963ko helburuak bete gabe zeudela argudiatuz. 1987an Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) sortua zen, eta hurrengo urteetan inguruko herrietara, Bergarara eta Eibarrera besteak beste, zabaldu zen euskara elkarteak sortzeko grina. Elgoibarko Izarrak urtebete behar izan zuen elkartearen jite berria prestatzeko, AED eta Adorez eta Atseginez Mintegia gidari zituela.

1992an etapa berria hasi zuten eta Imanol Larrañaga dinamizatzailea izan zen elkartearen lehenengo langilea. Elkarte berrindartuaren

Egitasmoak

Hedabideak

- *Barren* astekaria
- www.elgoibarren.net

Haurrak eta gazteak

Atxumiamaiak, Kiribilka, Berbazulo, Zerbitzuak (autofinantzaziorako egindako lanak), Ludoteka eta Gaztelekua (Udalak lehiaketara ateratako ekipamenduak).

Kulturgintza

Gotzon Garateren omenezko ekitaldia, bertso jaialdia...

Tertuliak programa

Mintza-laguna edo berba-laguna moduko egitasmoa.

Nazio mailakoak

Korrika, ikastolen aldeko jaientarako garraioa, Egunkariaren itxiera...

lehenengo egitasmoa *Barren* astekaria izan zen eta horren bueltan langile gehiago kontratatu zituzten: bi kazetari, maketatzailerak, publizista eta administraria.

Nola bultzatu parte-hartzea

Elkartearen bigarren etaparen bereizgarri nagusia profesionalizazioa izan da. Alabaina, langileak gora, bazkideen parte-hartzea beharra. Horixe, elkartearen kezketako bat, aurrean egingo duten gogoeta sakonean aztertuko duten gai garrantzitsuetariko bat: “*Barren* astekaria sortu zenean, oraindik profesionalen eta bazkideen oreka bazeen, baina profesionalak ugaritu ahala bazkideen parte-hartzea gutxitzen doa. Badago parte-hartzea, baina gizarte mugimendu batek eskatzen duen baino gutxiago, eta handiagoa izan behar du”. Imanol Larrañaga dinamizatzailearen hitzak dira horiek. Gizartea bera ari da aldatzen, eta beste alorretan bezala euskalgintzan ere, nabaria da herriartaren musu-trukeko jardunaren behar-kada. 1963an elkarrekin 1.400 bazkide zituen, orain 600 dauzka eta “amestu ere ezin dugu egin kopuru

Barren astekaria

GIPUZKOAKO DEBABARRENA bailaran –Eibar, Elgoibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mendaro, Bizkaiko Ermua eta Mallabia– bi urteko gogoeta egin dute euskara elkarteek, erabakitzeko ea haien hedabideek orain bezala bakoitzak bere bidean segi behar duen ala eskualde mailako hedabidea abiatu behar duten. Bada, eskualdeko egitasmoari ez heltzekotan geratu dira. Besteak beste, Elgoibarko Izarrako batzar orokorrak ezezkia erabaki du. Ondoko galdera mahai gainean zegoen:

bakoitza bere herriko proiektuari eutsi ezinik ibili beharrean zergatik ez da bat bideragarria egingo? Imanol Larrañagak laburtu digu elkarte batzarrean bazkideek egindako gogoeta: “Orain proiektu bat daukagu, herrian aparteko estimazioa daukana. Bale, ez da bideragarria, baina hain erakargarri egiten ez zaigun bailarako egitasmoarekin zatote, eta gainera, hori ere ez da bideragarria”. Beraz, oraingoz astero-astero *Barren* aldizkaria argitaratzen segiko dute.



Astekaria diruz
laguntzeko
egindako
kanpaina berezia.

hartara heltzerik”. Bada bigarren arrazoi bat parte-hartze galera azaltzen duena. Langile profesionalen lekua hartu duten heinean bazkideek haiengan delegatu dute lana. “Hainbat bazkidek esan digu –dio Larrañagak–, ‘zuengan konfiantza handia daukagu’ eta ‘igoal, nire behar handirik ere ez dago’. Guk gure lana egin behar dugu, baina hau 600 bazkideena da”.

Soka lepoan

Larrañagak ederki laburbildu digu Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea zertan den 2013an: “Begi batetik atzera begira gaude [mende Erdiko jarduna ospatu egin behar da] eta beste begiarekin etorkizunera begira gaude”. Geroari begira daude, Elgoibar duela 50 urte baino euskaldunagoa izanda ere oraindik asko dagoelako egiteko, eta aurrera begira daude krisi ekonomiko betean egitura mantentzea zaila delako. 19 langileek zortzi orduko

lan jarduna zazpi ordu eta erdira murriztu dute, eta soldata ehuneko 20. Elkartearen diru iturri nagusia, Elgoibarko Udala, emaria geldotzen hasi zen duela urte batzuk. 1991n hasitako bide berrian Udala ezinbesteko bidelaguna izan da. Urtero, hutsik egin gabe, diruz lagundu ditu elkartearen egitasmoak. 500.000 pezetako aurrekontua zuten bigarren etapako hasiera hartan eta *Barren* astekaria abian ipinita 24 milioi pezetako aurrekontura egin zuten jauzi. Gaur egun 19 langileko egitura mantendu behar da. “Azken 4-5 urteetan soka lepoan daukagu. Egitasmoa jasangarria al da? Puska batean eutsiko al diogu egitura honi, krisia pasa arte? Udala itzuliko al da 1991tik duela 4-5 urte arte ematen zituen diru-laguntzen garaira?”. Galdera horiei erantzun behar-kada die mende Erdiko ibilbide oparoa duen elkarteak. ■



GEORGES IBRAHIM ABDALLAH


Frantzia 29 urte preso daramatzen Parot libanotarra

Giza eskubideen aldeko eta ezkerreko hainbat talde eta elkartek deituta, martxoaren 16an manifestazioa egin zuten Baionako presondegiaren murrueen inguruetan. Frantziak azken 29 urteotan preso daukan Georges Ibrahim Abdallah militante libanoarra askatzea eskatu zuten.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

PARISKO AUZITEGI antiterro-ristak 1987an bizi osorako espetxealdira kondenatu zuen Abdallahk segurtasuneko epea 1999an osatu zuen, eta geroztik baldintzapeko askatasunean irteteko eskubidea badu. Hala ere, agintariek behin eta berriro ukatu diote kaleratzea, azken aldio- tan Rachida Dati ministroa zenean indarrean jarritako legediaren aitzakian. Espainian famatu egindako *Parot* doktrinarekin gertatutakoen antza badu, hein batean, Abdallahrekin jazotzen ari denak.

Libanoko iparraldean jaio zen Georges Ibrahim Abdallah 1951n, familia kristau batean. Oso gazterik sartu zen Palestinaren Askapenerako Fronte Popularrean (FPLP frantses sigletan). 1982an Israel- ek Libano inbaditu zuen, eta "Bakea Galilean" operazioak eragin zituen 25.000 heriotza, 45.000 zauritu, Beirut suntsitzea, Sabra eta Xatila errefuxiatu kanpamenduetako



1999tik baldintzapeko askatasunean behar luke Abdallah militante libanoarrak.

sarraskiak, eta abar. Palestina eta Libanoko gerrillari-ek mundu osora zabaltu nahi izan zuten erantzuna. Frantziaren kasuan, Libanoko Indar Armatu Iraultzaileek (FARL frantsesez) bi hilketa oso berezi egin zituzten: Charles Ray AEBek Frantziako enbaxadan

zeukaten arduradun militarra eta Yakov Barsimantov Israelgo zerbitzu sekretuen –Mossad delakoaren– Frantziako arduraduna. Bitxikeria argigarri modura, 2012ko urtarrilean Abdallah askatzea eskatu zuen bera arrastatu zutenean DST zerbitzu sekretuetako buru zen Yves Bonnet orain diputatuak.

Abdallahren izenak Frantziako jendeei urte hartan Parisen gertatutako atentatuak dakartzkie burura. 1984an arrastatu zuten polizia frantsesek, atxilo aldi luze bezain polemikoa abiatuz. Baionako manifestaldirako deialdia egiten dutenen agirian irakurri daiteke Abdallahren arrastatze eta

kondena loturik daudela zerbitzu sekretu frantsesen manipulazioekin. Haren abokatu Jacques Vergès-ek, berriaz, aspaldi salatu zuen AEBetako Gobernuaren presioz daukatela oraindik espetxean. ■



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia

Bost udalerri berri Ueman



EITB.COM

ORION (GIPUZKOA) egin du batzarrak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, eta bost kide berriak aurkeztu dituzte. Gipuzkoako Zarautz eta Tolosa sartu dira mankomunitatean, Bizkaikoak Lekeitio eta Munitibar, eta Nafarroako Lesaka. Udalerrri berriak eta zaharrak, denak kontuan hartuta, 216.000 herritar inguru biltzen ditu Uemak. Inoiz baino udalerrri gehiago daude mankomunitatean: 69. Sortu zenean, 1991n, 14 udalerrirekin hasi zen. Mankomunitatean ez dago Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako udalerririk.

Izparringia.net albistegi umoretsua



SOKA ederki tenkatuta dugun garaioan barre pixka bat egin nahi baduzu, *Izparringia.net*-ek agian lagunduko dizu. Oso ikuspuntu “bereziki” aurkituko dituzu webgune honetako albisteetan. Betiko gaiak irakurriko dituzu, dela Realaren eta Athleticeko arteko dema, Merkel eta Berlusconi, krisi ekonomikoa eta langabezia, baina idazterakoan kazetariak umorerik ez duela falta ohartuko zara. Beste kontu bat da sinestekoak diren albisteok... Izparringiak abisatu digunez, *Urepeleko Artzaina* abestia kantatzea debekatuta egongo da datozen hamar urteotan.

Bahea

Garaigoikoa blogean **Petra Elserrek** soziolinguistikaren dibulgazioaz esanak:

“Harrigarria da eta beldurgarria batzuetan, euskalgintzatik eta soziolinguistikaren mundutik kanpo, zer jende gutxi erabiltzen dituen hizkuntza portaerako (edo beste hitzetan esanda, euskara nonahi erabiltzeko) tresna proaktibo ximpleak, ezezagunei lehenengo hitza euskaraz egitea bezalakoak.

Etxean eta euren inguruan euskara lehenengo hizkuntza dutenek baina hizkuntzaren kontzientziaren unibertso horrekin zerikusirik ez dutenek ez dituzte tresna horiek erabiltzen. Inoiz hortaz pentsatu, entzun edo irakurri ez baldin badute, oso urrun geratzen zaie.

Soziolinguistikak hiltzen jarraera eta hizkuntzen erabileraren inguruan teorizatzen duena oso modu kontsumigarri batean zabaldu egin behar da, baita forma berriak asmatu ere. Eta helburua ez da bakarrik hiltzen kontzientzia piztea, baita teoriatik praktikara pasatzeko esperientzia berriak sortzea ere”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

EAEko aurrekontuak, Madrilekin eta Bruselarekin otzanak

EAJREN GOBERNUAK Euskal Autonomia Erkidegoarentzat aurkeztutako aurrekontuek Madrili eta Bruselari men egiten diete. Kapitalismoak Europan inposatu duen “austeritate” filosofiarekin bat egin dute aurrekontuok; Grezian, Portugalen, Italian eta Espainian langabezia eta miseria eragiten ari den filosofia bera, hain zuzen. Urkulluk aurkeztutako aurrekontuak, Carlos Urquijo EAerako Espainiako Gobernuaren delegatuak ere aurkeztu zitzaizkion. Antonio Basagoitik lehendakariari exijitu dio barkamena eska diezaiola Rajoyri, Espainiako Gobernuak egindako murrizketen kontra egindako salaketengatik: “Urkullurenak ere ez dira nola-halako murrizketak”, esan du Basagoitik. Ez zaio arrazoirik falta, aurreikusitako 1.132 milioi euroko murrizketetatik, 711 milioi “gastu sozial” deiturikoaren kontura baitira. Murrizketaren zati handiena, %62,58, Hezkuntza, Osasuna eta Babes Sozialaren sailetan egin da, proportzionalki beste batzuk baino murrizketa txikiagoa izan duten arren.

Ez da egia dirurik ez dagoenik. Ez dagoena da borondate politikoa, enplegua sortuko duen beste politika ekonomiko bat aurrera eramateko; ez dago borondateirik fortuna eta enpresa handietatik diru gehiago bilduko duen politika fiskal bat egiteko. Eurak baitira hain justu, kapitalistak, beren politikak inposatzen dizkienak Brusela, Madril, Gasteiz edo Iruñeko gobernuak. Eta horregatik, dirurik ez dagoela dioen EAJren Gobernuak, AHTren obrak gelditu ez baizik aurreratu eta finantzatu egingo ditu, Kupoaren bizkar noski. Kupo horretako milioika euro, enplegu egonkorra eta gastu sozialerako inbertsioak egiteko bideratu zitezkeen, baina arazoak besterik ekarriko ez dituen AHTa eraikitzeke erabiliko dira. Urkulluk gezurra dio aurrekontu hauek beste irtenbiderik ez dutela baieztatzean. Hala ere, oso koherentea da Madril eta Bruselarekiko beti erakutsi duen otzantasunarekin.

Juan Mari Arregi



Alemaniarri munduak zorren bi heren kitatu zizkionekoa

Alemaniarri eta oro har Europa protestante aberatseko herriarrek ez omen lukete sekula onartuko beste herrialdeen zorrik barkatzea: pagatzea sakratua omen zaie. Alta, duela 60 urte munduko potentzia nagusiek zorraren zati handia barkatu zioten gerra galdu berria zuten alemanei. Barkamen hura gabe ezin ulertu gaurko Alemaniarren indarra.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

1953KO OTSAILAK 27, LONDRES. Negoziatzaera eseri dira alde batetik Alemania Federaleko ordezkariak –gazteek entzuna izan behar dute 1990a arte bitan zatiturik egon zela herrialde hura, ekialdekoa bloke sozialistari lotua, mendebaldekoa kapitalistari– eta bestetik Amerikako Estatu Batuak, Britainia Handia, Frantzia, Belgika, Kanada, Danimarka, Zeilan, Grezia, Iran, Irlanda, Italia, Liechtenstein, Luxenburg, Norvegia, Espainia, Suedia, Suitza, Hego Afrika eta Yugoelabiakoak. Hau da, Alemaniak dirua, eta asko, zor zien herrialdeak.

Abuztuan sinatuko zuten ituna zordunak eta hartzekodunek: gerrako txikiziotik burua jaso ezinik zebilen Alemaniari bere zorren %62a barkatzen zioten eta gainerakoa epe luzeetarako atzeratzen. Azken zatia Alemania berri zabalduak pagatuko zuen... 2010ean!

Wikipedian ere, batik bat ingelesezkoan, xeheki azaltzen den gertakizun honi garrantzia berezia eman dio Eric Toussaint ATTAC erakundeko buru ezagunak. Joan den azaroan *Grecia-Alemania: ¿Quién debe a quién? (1) La anulación de la deuda alemana en Londres en 1953* artikuluan aipatu zuen eta orain berriro harrotu ditu hauts haiek *Le Grand Soir* gune ezkertiarrean: *Voici 60 ans, l'annulation de la dette allemande*.

Motibo gutxiagorekin ospatzen ditugu urteurrenak komunikabideetako kazetariok. Bere agintariek eta banku handiek egindako zorrak zorrotz ordaindu beharrak Grezia kolapsora eta ondotik Irlanda, Portugal eta Espainia porrotera eramandituenan, urteurrenak badauzka irakaspen bat baino gehiago.

1953an AEBek, Britainia Handiak eta Frantziak –alemanen hartzekodun nagusiek– bi multzotan bildurik kalkulatu zituzten Alemaniak zor zituenak. Alde batetik, gerra aurreko zorrak, aspalditik zetozenak eta 1929ko krisitzarrak handiagotu baizik egin ez zituenak: 22.600 milioi marko, interesak barne. Bestetik, gerra galdu ondoko urteetan metatutako mailegu ez ordainduak: 16.200 milioi marko. Denetara, 38.800 milioi marko.

1953ko udaberrian burututako negoziatioari esker, Bonnekoko agintariak Londrestik etxeratu ziren zorren %62a barkaturik; aurrerantzean pagakizun geratuko zitzaizkien 14.500 milioi marko. Baina barkamen soila baino askoz baldintza hobeak onartu zizkieten aliatuek alemanei.

Toussaintek argitu duenez, “Mendebaldeko Alemaniarren ekonomia benetan suspertuko zela eta herrialde atlantiarrek ekialdekoen

Wikipediak Deutsche Bankeko artxibotik hartutako argaki txikian, Hermann Josef Abs. Deutsche Bankeko buruzagitza egon zen Abs (1901-1994) hasi 1937tik eta zahartu arte, nazien agintealdian bezala gerra ostean. Bera zen *Marshall plana* Alemanian bideratzen zuena; Absi aitortzen diote alemanek 1953ko itunean zorren zati handi baten barkamena lortzearen meritua. Irudi handian, *Le Mondeko* blogen artean Françoise Fressozek daukanetik hartua, Angela Merkel lehen ministro doixtarra bilkura batetik irtetean, 2012ko otsailean. Aliatuek eta oro har hartzekodunek 1953an alemanei ordaintzeko erraztasunak eskaini zizkieten bezala, gaur Merkelek Europako periferiako herrialde zorpetuei aurkeztzen dien aukera bakarra urte luzez herrialde txiroei eskaini zaien bera da: zorren barkamenik ez, ekonomia atzeritarren esku, pribatizazioak, herriarrentzat klase guztietako sakrifizioak.

(komunisten) aurrean erakusgai erabili ahal izango zutela segurtatzeko, hartzekodunek kontzesio oso handiak egin zizkieten Alemaniako agintariei eta enpresei. Onartu zuten zorraren ordainketak ez zirela oztupo izango ez ekonomiaren hazkundearentzako, eza herriarren bizi maila hobetzeko. Pagatu bai baina pobretu gabe”.

Greziako botikaren alderantzizkoa

Eric Toussaintek zehaztu ditu tratuaren puntu nagusiak. Hasteko, Alemaniak pagatuko zuen bere monetan, markotan; markoak 1950eko hamarkadan ez zeukan geroztik lortuko zuen indarririk eta gainera debalatu zezakeen.

Bigarren baldintza, garai hartan produkzio sarea artean deseginik zeukanez eta kanpoko balantze komertziala negatiboa, Alemaniari onartu zitzaion inportazioak gutxitzea. Hau da, hartzekodunek uko egin zioten Alemaniara beren produktuak esportatzeko aukerari.

Hirugarrenik, Alemaniari baimendu zioten atzerrira esportatzea. Itunak testualki onartzen zion Alemaniari “aurre egin ahal izatea bere produkzio propioa hobetzeko daukan problemek, arreta berezia ezarritz esportatzeko ahalmena handitzeari eta inportazioak ordezkatu ahal izateari (...) horretarako behar



nahikoa badela ordaindu ezin diren zorrak arindu eta barkatzea. Inork ez dio erraz amore ematen diru asko zor dionari... non eta ez daukan horretarako arrazoi handiren bat.

AEBe bezala Britainia Handiak eta Frantziak motibo bat baino gehiago zeuzkaten horretarako. Gerra hotzaren erdian, orduko Sobiet Batasunaren indarrari beldurra zioten. Geopolitikak eskatzen zien Mendebaldeko Alemania azkar industrializatzea, bertako profesional eta adituak berriro mobilizatzea. Alemaniako herritarren kemenaz gain baldintza horiek eta gehiago egon ziren *mirari alemanaren* sus-traian.

Gaur, 60. urte beranduago, Alemaniak baina baita Europa aberatsaren zati handi batek oso bestelako errezetak ezarri dizkie zorraren eritasunak lur jota dauzkan Grezia, Irlanda, Portugal eta Espainiari, eta formula beraren bertsio pittin bat leunago baina oso antzekoekin mehatxatzen dira Italia, Britainia Handia edo Frantziako jendeak.

1953koaren alderantzizko erre-medioa: zorraren barkamen funtsezkorik ez, kontrol guztia atzerriko agintarien esku, lekuko ekonomiak biziberritu ez baina ito-arazteko ajuste neurriak, monetaren gaineko kontrol oro kendua, atzerriko inbertsiogileentzako ate guztiak zabalik... Egia da Sobiet Batasuna bezalako alternatibarik ez duela kapitalismo neoliberalak. Aldiz, ondo neurtu ote dute laster eragin dezaketen leherketa soziala? ■



diren neurri fiskal eta ekonomikoak hartuz”.

Laugarrenik, eta hau bai dela deigarria gaur egungo begientzat: hartzekodunekin sortu litezkeen auziak Alemaniako epaitegietan erabakiko dira. Eta gainera espresuki esaten da “Alemaniako auzitegiek eten ahal izango dituztela zorren pagaketak baldin eta hauek ordenu publikoaren kontrakoak badira”. Edozeren aurretik, ez dadila liskarrik sortu herritarren artean. Bake soziala.

Toussaintek nabarmendu duen bosgarren osagaia, zorrak pagatzeko Alemaniak ezingo duela erabili esportaziotik eskuratzen dituen diruen %5 baino gehiago. Hots, alderantziz esanda: hartzekodunek beren erreklamazioei muga jarri zie-

ten justu zorretan dagonaren esportazioen %5 horretan.

Orduan burua jaso ezinik ari ziren alemanei onura gehiago ere luzatu zizkieten hartzekodunek. Alemaniak hasi eta galdutako gerrako kalte ordainak, hasierako 38.800 horiei gehitu beharreko beste zorrak, eperik gabe pagatzeko moduan atzeratu zizkieten. Eta gainera Marshall plana dela medio diruz laguntzen zioten AEBek.

Gaur Alemanian agintariek jokatzen duten eta herritarrek sustatzen duten politika ekonomikoari kontrajartzeko motibo bat baino gehiago eskaintzen du 1953ko eta 2013ko egoeren alderatzeak.

Begi bistakoa da zorrak zintzo pagatzea bezain alemana edo non-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

♦ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Barcina ahul, alternatiba ere bai

YOLANDA BARCINA-K jarraitzen du UPNko lehendakari moduan: 871 boto (%51,78) bere alde, Alberto Catalánek baino –Miguel Sanzek baino– 76 gehiago. Ezustekoa izan da, ez da gertatu oro har uste zena, eta oraingoan Gobernuaren aparatua alderdiarenari gailendu zaio. Besteak beste, hori zen Catalánen sektoreak saihestu nahi zuena, Barcinaren izendapenek ez hartzea alderdia. Bada, ez du lortu eta UPN oso egoera estuan geratu da.

Hainbat arrazoi aipatzen dira bere garaipenean, eta horien artean bi nabarmentzen dira: bat, kanpaina zorrotza egitea, ez UPNren barruan bakarrik, baita kanpoin ere (dieten diruaren itzulera...); bi, azken urte luzeetan Iruñeko alkatez eta Nafarroako Gobernuan egindako izendapen kopuruak eta hauen eragin erabakigarria.

Orain, barrura begira zauriak itxi beharko ditu eta hori ez da samurra, familian, enpresan, alderdian, edo elkartean halakoak bizi izan dituenak ondo daki hori. Egia da UPNk gaintitu izan dituela halakoak, Jesus Aizpun eta Juan Cruz Alliren kasuan, esate batera, edo azken honek CDN sortu ondoren ere bai. Baina egia da, halaber, egoera hau oso berezia dela hainbat arrazoiengatik. Krisia, bakardade politikoa eta ustelkeriaren ondorioz, UPNren egoera oso estua da oraindik, etxe barruan eta Gobernuan. PSN ere, azken urte luzeetako bere aliatu fidela, beheranzko joeran dago. Eta, aldiz, espazio abertzale eta aurrerakoia indartu egin dira, Legebiltzarrean oposizio sendoa egiteraino.

Barcinak eta bere taldeak Gobernuan nola eutsi pentsatu

beharko dute, boterea baita orain –soldatak, lanpostuak...– haien arteko zementurik onena. Baina ez dirudi krisiak asko lagunduko diotik. Eta ikusi behar esparru judizialean Nafarroako Kutzaren aferrak zer dakarkion. Lehenik eta behin, joan den astean langa bat gaintitu zuen Nafarroako lehendakariak, Nafarroako fiskal nagusiak Kontuz-ek jarritako salaketa –Barcinak Nafarroako Kutzako informazioa bere negozioetarako baliatu izana– artxibatu zuenean. Baina kutxa osoaren aferaz horren samur libratzea ez bide da hain erraza izango. Auzi honek bere gobernua ahultzen jarraituko du.

OPOSIZIOA pozik dago Barcinaren garaipenaz, horrek PSNrekiko hurbilketa zailtzen diolakoan. Orain, batetik, Gobernu hingatzea eta hauteskundeak eskatzea dago-kio eta, bestetik, alternatiba saioa prestatzea. Baina alternantzia hori zailtasunez betea dago, bai oposiziozko indarren izaera anitzagatik, eta batez ere, PSNren jarreragatik. Alfredo Pérez Rubalcabak argi utzi berri du PSOEn hautua UPN dela.

Eta pentsatzekoa da EH Bilduk badiola beldurrik Uxue Barkosen irudiari

Edonola, alternantzia nola doan eratzen ikusi beharko da, eta horretarako bere ardatza diren EH Bildu eta Geroa Bairen begiratu beharko zaie. Batetik, aldatetaren motore gisa, ezinbestekoa da haien aliantza eta, bestetik, hegomoniaren lehia ere zorrotza da. Espainiako azken hauteskunde orokorretan Amaiurrek 49.100

boto lortu zituen eta Geroa Baik, ezustean, 42.415. Uxue Barkosen lidergoa eta honek Iruñerrian duen irudia giltzarri izan ziren garaipen horretan. Hori Espainiako hauteskundeetan hala izanik, bistan da Nafarroako hauteskunde batzuetan Barkosen irudiak baduela indarra.

Zalantzarik gabe, hori oso ona da Geroa Bairentzat eta akaso alternantziarentzat ere bai, baina arriskutsua EH Bildurentzat, eta pentsatzekoa da badiola beldurrik Uxue Barkosen irudiari. EH Bilduk oraindik ez du tamaina horretako liderrik, ez behintzat aktibotan. Pertsona esanguratsu eta erreferentzialak baditu, baina gaitza dirudi EH Bildun gehien agintzen duen Sortuk Patxi Zabaleta moduko bat onartzea, edo Pernando Barrenaren irudia lotuegia da Sorturekin... eta Bakartxo Ruiz egiten ari bada ere, oraindik urruti dago Uxue Barkosen lidergotik. Bai, alderdiak, gauza horiek ere sakon ari dira jorratzen dagoeneko.

PSNren jokaerak, halaber, gizendu dezake Geroa Bai. Orain arte bezala, UPNren estrategiari lotua agertzen bada, botoak galtzen jarraituko du eta horien parte batek Geroa Baira egin dezake. EH Bilduk, bere aldetik, krisiak eragindako deskontentu sozialaren zati bat ere beregana dezake,


baina ez dirudi samurra hortik asko gizontzea, hori egin dezaketan alderdi txikiagoak ere badiorelako, besteak beste Ezkerra.

Alternantziaren aukera sendotzen den neurrian, oposizioaren lidergo kontuak ere bereziki piztuko dira. Hala bedi. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Inguru Abentura

Espeleologia (II. maila)
3 harpideentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2360. Argia)

A FUEGO NEGRO jatetxea

- Iban Garate Garmendia (Gasteiz)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Artez Euskara Zerbitzua (Bilbo)
- Jon Artano Izeta (Zestoa)
- Andone Barandiaran Arratibail (Pasaia)

888 TXISTE Kike Amonarriz

- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)
- Juan Mari Lasa Tolaretxipi (Donostia)

EKAINBERRI

- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Kepa Zamalloa Ozerin (Oartzun)
- Jokin Zubeldia Mujika (Hernani)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)
- Fray Juan de Zumarraga Institutua (Durango)
- Iraitz Agirre Aranguren (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Ginea

argia





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Garrasia Saharatik
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathón
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean

